

ESANEZ EGINA

Euskarari buruzko esparru formal eta informaletako diskurtsoen azterketa

Uxo Anduaga Berrotaran

Tutorea: Estitxu Garai Artetxe

Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, 2017-2018

Laburpena

Ikerketa-hausnarketa lan honek esparru informaletik eta formaletik igortzen diren euskararen inguruko diskurtsoak aztertu eta elkarren artean alderatzea du helburu. Horretarako Eusko Jaurlaritzako adierazpen publikoetan eta ETBko umore esketxetan igortzen direnak hartu dira lagin moduan. Ariketa honen bidez, batetik, agerian jarri nahi izan da esparru informaleko diskurtsoen edukiek formaletik igortzen direnekiko dituzten antzekotasun eta desberdintasunak non kokatzen diren, eta horren bidez, eztabaidara ekarri joera horrek zein eragin izan dezakeen euskararen gainean eraikitzen diren irudikari sozialetan, bai eta hizkuntzaren performazioan ere. Bestetik, umorearen ezaugarri, gaitasun eta ondorio sozialak agerian jarri nahi izan dira, praktika sozial honi egotzi ohi zaion hutsaltasun eta onberatasunaren atzean erreminta diskurtsibo (politiko) izateko gaitasuna ere baduela azaleratuz.

Hitz gakoak: euskara, diskurtsoa, umorea, esparru formala, esparru informala

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Diskurtsoak, hizkuntza eta umorea	6
2.1. Euskararen inguruko diskurtsoak	6
2.2. Diskurtsoak eta errealitate sozialaren eraketa	9
2.3. Umorea, diskurtso moduan	11
2.4. Umorearen eragin sozialak	13
2.5. Umorearen oinarri komunak.....	14
3. Azterketaren nondik norakoak	17
3.1. Helburua eta lagina.....	18
3.2. Metodologia eta ikerketa teknikak.....	19
3.3. Diskurtsoen analisia.....	20
3.4. Umore diskurtsoen analisirako abiapuntua	21
4. Eraitzen analisia	23
4.1. Zeharkako trataera	23
4.1.1. Euskalkiak.....	23
4.1.2. Hitanoa	24
4.1.3. Doinua.....	25
4.2. Zuzeneko trataera	27
4.2.1. Maita nazazu gehiago, erabili nazazu gutxiago.....	27
4.2.2. Munduko hizkuntzarik zailena.....	29
4.2.3. Euskara ez erabiltzeko eskubidea	31
4.2.4. Euskaraz, edo	32
4.2.5. Aitorren hizkuntza zaharra.....	36
4.2.6. Euskal satelitea.....	37
4.2.7. Euskara hesi	38
4.2.8. Batuak banatu	41
5. Ondorioak	43
6. Eranskinak	45
6.1. Lagina.....	45
6.2. Eusko Jaurlaritza eta EITBren arteko kontratuaren zenbait atal	46
7. Bibliografia	48

1. Sarrera

Ohituak gaude euskararen alde jarduten duten komunikazio planek zer dioten eta horiek nola hobetu daitezkeen ikertzera. Baina ez da hain ohikoa izaten euskararen aurka diharduten bestelako mezuen azterketa egitea. Zoritxarrez erakunde publikoek edota horien ordezkariak usu helarazten dituzte euskararen aurkako mezuak edo iritziak eta horiek ere inpaktua sortzen dute gizartean.

Ez da memoria ariketa sakonik egin behar halako zenbait kasu gogora ekartzeko. Azken urteetan egon dira euskara publikoki mespretxatu, baliogabetu, gutxietsi edo baztertu duten ordezkari eta erakunde publikoak. Zorionez, ordea, halako kasuak ez dira ustekabeen igaro eta oihartzuna eman zaie euskal hiztunen duintasuna eta identitatea urratzeagatik sektore euskaltzalea kexu azaldu denean.

Ikerketa honek, ordea, ez dio sona handia lortu duten kasu paradigmaticoei edota buruz buruko gatazka soziala piztu duten adibideei heldu nahi. Horren ordez, eguneroko praktiken bidez eta ia hauteman gabe zeharka barneratzen ditugun "isilpeko" diskurtsoei heldu nahi die. Izan ere, hizkuntzarekiko gure hautematea, irudikaria edo egozten diegun zilegitasuna egunerokotasuneko praktika eta bizitza arruntaren bidez eraikitzen da bereziki, eta askotan inolako garrantzirik ematen ez diegun jarduerak izaten dira gure iritzi eta hautematean pisu gehien lortzen dutenak; hain zuzen ere garrantzirik ez emateagatik ia digeritu gabe barneratzen ditugulako.

Umorea da jarduera horietako bat. 2016an lan honen egileak egindako Doktoretza Tesiko emaitzak abiapuntutzat hartuz, umoreak errealitate soziala sortu eta birsortzeko gaitasuna izango duela esango dugu. Gizartean etengabe partekatua den praktika sozial honek errealitatean darabiltzagun erreferentziekin jolastu eta horien inguruko diskurtsoak helaraziko ditu: zenbaitetan dauden horiek eraldatu edo berriak ezartzeko, eta beste batzuetan, aldiz, ezagutzen ditugun horiek bere horretan utzi eta zilegitzeko.

Hori kontuan izanik, euskararen inguruan egiten den umoreak zein diskurtso helarazten dituen ikusi nahi da lan honetan, eta horren bidez, konturatu gabe hizkuntzaren gaineko zein irudikari, uste eta balio barneratzen ditugun argitara ekarri. Horrekin batera, umorez igorritako diskurtso horiek hizkuntzaren gainean igortzen diren bestelako diskurtsoekin konparatuko dira, errealitate berdin baten inguruan (euskara kasu honetan) gizarteratzen diren mezu desberdinak elkarren artean dituzten hurbiltasun eta urruntasunak agerian jartzeko. Alderaketa baliagarria izan dadin, iturri bera duten bi adar diskurtsibo alderatuko dira: bata, Eusko Jaurlaritzak espazio publikoan eta esparru formalean igortzen dituen horiek; eta bestea, ETBk (EAEko telebista kate publikoa denak, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren menean dagoenak) umore esketxen bidez igortzen dituenak.

Azterketa horren gaineko hausnarketa eta emaitzak hiru atal nagusitan banatu dira. Lehenean, gaiaren inguruko marko teorikoa lantzen da. Bertan, diskurtsoen ezaugarri eta gaitasun sozialak zehazten dira, umore diskurtsoek dituzten berezitasunetan arreta berezia jarritz. Bigarren atalean ikerketa burutzeko nondik norakoak azaltzen dira, erabili den metodologia, lagina eta ikerketa teknikak aipatuz. Eta hirugarrenean, hausnarketa eta ikerketa

lan honetatik ateratako emaitzen analisia aurkezten da, aztertu diren diskurtsoen ezaugarriak eta horien arteko alderaketak zer eman duen zehaztuz. Lana ixteko, aurrez aipatutako guztia aintzat hartzen duten azken ondorio batzuk gehitu dira.

2. Diskurtsoak, hizkuntza eta umorea

2.1. Euskararen inguruko diskurtsoak

Hizkuntza hitzen bidezko komunikazio sistema bat baino zerbait gehiago dela aspaldi ikasi genuen euskaldunok. Historia hurbilean atzera egitea aski da euskarak jaso duen bazterketa eta zapalkuntza euskal kolektiboari egin nahi izan zaion bazterketa eta zapalkuntza dela ulertzeko (Amorrortu eta beste, 2009). Azkar antzeman daiteke Frankismoak euskara erabiltzea debekatu zenean, adibidez, ez zela haren fonologia halakoa eta gramatika bestelakoa zelako izan. Edota euskarak normalizazioaren alde ahaleginak egin behar izatea ez dela bere ezaugarri linguistikoak beste edozein hizkuntzarenak baino zailagoak direlako gertatu. Horren ordez, euskararen aurkako (eta aldeko) ahaleginak bistaratu dute hizkuntzaren atzean herri oso baten nortasun, naziotasun eta harrotasuna harilkatzen direla eta, hain zuzen ere horregatik, hizkuntza kolpatzeak beste hirurak kaltetzea ekar dezakeela berekin. Hizkuntzez jardutean, beraz, ez gabilta objektiboak edo aseptikoak diren komunikazio baliabideez; karga historiko, politiko, finantzario, juridiko eta sozio-kulturalek urte luzeetan forma emandako errealitate biziez baizik. Egozten zaizkien ezaugarrien eta loturen arabera kasuan-kasu balio desberdina hartuko dutenak eta, sarriegi, helburu linguistikorik ez duten bestelako interesen kaltetu nagusia suertatu ohi direnak.

Hizkuntzen atzean dauden balio horiek agerian jarri zituen Pierre Bourdieu (2001) soziologoak *merkatu linguistikoaz* egindako bere hausnarketetan. Egileak aditzera eman zuen hizkuntza desberdinek (bai eta hizkuntza berean hitz egiteko modu desberdinek ere) gizartean ez dutela pisu berdinarik izango, hain zuzen ere, leku eta denboraren arabera aldatzen joango diren ezaugarri jakin batzuk esleitzen zaizkielako eta horien arabera batzuek besteek baino estatus eta prestigio gehiago izango dutelako. Hala, esaterako, XIX. mendeko European frantsesak zuen izaera akademiko eta ilustratua ingelesak eskuratu du gaur egungo mundu globalizatuan, biak ere prestigiozko hizkuntzak izanik. Aldiz, bretoiera, gaskoiera, aranesa edo kashubiera bezalako hizkuntza gutxituek usaindu ere ez dute egin zer izan litekeen estatu hizkuntzen mailako zilegitasun edo onarpenera edukitzea.

Bourdieuaren hitzen arabera, hizkuntza (eta hizkera) desberdinek gizarte mailan jasotzen duten ikuspegi gora-beherek zer ikusi handia izango dute klase sozialek dituzten *habitusekin*. Hala, posizio sozial bakoitzak berezkozat dituen pentsatu, sentitu eta aritzeko moldeak arrunt edo arrotz, onargarri edo gaitzesgarri, bihurtuko dute hizkuntza bat eta haren erabilera. Horren arabera goi klasekoen artean, esaterako, ohikoa eta sofistikatua izan liteke esaldien artean ingelera azko adierak eta lokuzioak sartzea; baina behar bada gauza bera arrotz edo petraltzat joko da klase xumeetan.

Haatik, hizkuntza baten inguruko irakurketa horiek ez dira berez sortzen, hiztuna hizkuntza bat edo beste hautatzera eta erabiltzera bultzatzen duena ez baita irrika natural bat, konbikzio sozial bat baizik. Hizkuntzei egozten zaizkien ezaugarriak eraiki, zabaldu, onartu eta etengabe erreproduzitzen diren kate baten emaitza dira. Gizartean sortu eta erabakiko (lehiatuko) den merkatu linguistikoan hizkuntza bakoitzak posizio desberdina eskuratuko du, eta ezinbestean, horretan parte hartzen duten agente (sozial, politiko, kultural...) desberdinen

arteko botere harremanaren arabera, aldekoagoak edo aurkakoagoak izango dira hizkuntza horri balioa emango dioten diskurtsoak ere.

“Azken buruan, gizartearen hizkuntza-diskurtsoa nolakoa, gizartearen hizkuntza balorazioak eta hizkuntzarekiko gizarte arauak halakoak. Eta, hortaz, gizartearen hizkuntzarekiko babes, edo halakorik eza, ere bai” (Martinez de Luna, 2018:16)

Diskurtsoak dira, hain zuzen ere, hizkuntza baten gaineko uste eta iritzietan (eta ondorioz baita haren erabileran ere) eragin nabarmena izango duen faktoreetariko bat. Izan ere, Iñaki Martinez de Luna soziologoak aipatu bezala, gizartearen egitura kognitiboetan hizkuntza hautemateko irudikariak eta diskurtsoak eratzen dira, eta horien bidez hizkuntzak ulertu eta bizitzeko moduak finkatuko dira (Martinez de Luna, 2018).

Diskurtsoek duten pisua ez da oharkabea pasa euskararen kasuan ere, esanguratsua baita euskararen inguruan dauden diskurtsoak aztertzeaz arduratu diren ikerlanak zein ugariak diren ikustea. Lan horien artean bi ditugu aipagarri: *“Actitudes y prejuicios de los castellanohablantes hacia el euskera”* (Amorrotu eta beste, 2009); eta *“Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa”* (Martinez de Luna eta beste, 2016).

“Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa” lanean inkesta eta eztabaida taldeen bidez euskararen inguruan zer iritzi zuten galdetu zitzaion EAEko hainbat kideri eta bertatik jasotako erantzunak zein positiboak izan ziren ikustea harrigarria suertatu zen. Gehiengo nagusi batek euskararen inguruan jarrera positiboak zituen: euskara sustatzearen alde zeuden; euskarak balio pragmatikoa zuela zioten; edota euskararekiko errespetua gorde behar zela defendatzen zuten.

Zerrendan horretan nabarmenki atzean geratzen ziren, ordea, euskararekiko mesfidantza zutela aitortzen zutenen diskurtsoak, gutxiengo batek aipatzen baitzuen, esaterako, euskara derrigortutako zer edo zer zela; politizatua zegoela; elebidunen jarrera tematia zela; edo prestigiorik ez zuen hizkuntza zela. Erantzun horien jabeen profila oso markatua zen gainera, euskararekiko interes txikia zutenak (%34), batez ere espainiar sentitzen zirenak (%33) eta euskara ez jakiteagatik diskriminatuak sentitzen ziren erdaldunetz (%30) osatua baitzegoen taldea (Martinez de Luna eta beste, 2016:94).

Ikerlan honen atalik interesgarriena, aldiz, ikerlariak beraiek ematen duten datuen gaineko irakurketan dago. Izan ere, euskararen kontrako diskurtsoaren kopurua hain da urria, ezen, ikerlariak ere horren inguruan aipamen bat egiteko beharrean sentitzen diren:

“Susmoa dugu, bestalde, diskurtso horrek barnebiltzen dituen zenbait ideia inkestan agertu direna baino hedatuago egon daitekeela gizartean, eta zuzentasun politikoak ez duela erraztu euskararen inguruko zalantzak eta kritikak jendaurrean argi azaltzen. Hortaz, sentsibilitate horri arretaz jarraitu behar zaio” (Martinez de Luna eta beste, 2016:136).

Euskararen aurkakoen emaitza baxua izanagatik ere, oso interesgarria bilakatzen da euskararen inguruan dauden hizkuntzaren zilegitasunaren aldeko diskurtsoek izan duten

eragina baloratzeko orduan. Izan ere, euskara bultzatzeko egin diren urteetako esfortzuek euskararen aldeko diskurtsoa gizartean txertatzea lortu dutela ikus liteke. Edo bestela esanda, euskararen alde egotea politikoki zuzena den jarrera bihurtu da, eta alderantziz, horren aurka egotea gaizki ikusia dago.

Baina politikoki zuzena den diskurtso hori gizartean naturalizatzeko duen garrantziari muzinik egin gabe, kontuan izan behar da euskararen aurkako jarrera duten pertsonak ikerketa honek agerrarazi dituenak baino askoz gehiago izan daitezkeela, eta beraz, esparru publikotik harago, badagoela euskara mesfidantzaz begiratzen dutenen sare zabalago bat. Esan nahi baita, politikoki zuzena den diskurtsoa bilakatzeagatik ez dela euskararekiko aurkako diskurtsoak desagerraraztea lortu; horiek itzalerago gordetzea baizik.

Zenbait urte aurretik egindako lana bada ere, euskararen aurkako diskurtsoen inguruko datuak modu zabalagoan erakusten ditu *“Actitudes y prejuicios de los castellanohablantes hacia el euskera”* (Amorrortu eta beste, 2009) ikerlanak. Kasu honetan gaztelaniadunek euskararekiko dituzten jarrera eta iritziak ezagutzeko bilatzen du ikerketak, eta diskurtsoak kategoriatan desberdinetan antolatuz, EAE eta Nafarroako biztanleriaren iritzia nolakoa den agerian jartzen da bertan. Lanak jasotzen dituen datuen artean ondokoak azpimarra daitezke.

Batetik, elkarrizketatuek euskarari egozten dioten balio instrumentalaren artean bi joera nabarmentzen direla ikusi da. Lehenak euskarari ez dio inolako baliorik ematen, egunerokoan bizi eta aritzeko beharrezkoa denik ez baita uste. Bigarrenak, aldiz, euskararen garrantzia lanpostu jakin batzuk eskuratzeko orduan duen pisuan kokatzen du, euskara jakiteak curriculumean puntuak ematen dituela azpimarratuz.

Bestetik, euskarak duen (edo izan dezakeen) balio integratzailearen inguruan galdetzen zaienean, elkarrizketatuek ez dute pentsatzen euskara gizartean txertatua sentitzeko beharrezkoa denik, gaztelania soilik jakinik ere primeran moldatzen direla aipatzen baitute.

Horretaz gain, aurreko ikerketan bezalaxe honetan ere, euskara politizatua dagoela aipatu du hainbatek. Bereziki euskal nazionalismoari loturiko alderdiekin eta haien aldarrikapenekin lotura eginez eta hizkuntza helburu nazionalistak erdiesteko aldarri gisa erabilia izan dela argudiatuz.

Euskara ikastearen (eta batez ere ez ikastearen) inguruko arrazoiei dagokionez bi ideia dira aipagarri. Batetik, motibazioarekin zer ikusia duten arrazoien artean, euskara ikasten zaila den hizkuntza bat delako ideia maiz errepikatzen da. Bestetik, izaera administratiboa duten bestelako arrazoiak azpimarratzen dira, bereziki EGA ebaluazio sistemari ematen zaion gehiegizko garrantzian indar eginez.

Euskararen inguruan, oro har, duten iritziaz galdetu zaienean oso zaila eta konplexua den hizkuntza bat delako ustea nabarmendu da. Bai inguruan dituen beste hizkuntzekin antzekotasunik ez duelako, bai eta idatzia eta ahozkoa oso desberdinak direlako ere, euskaraz inortxok ere ondo ez dakiela oso zabaldua dagoen beste diskurtso bat da. Euskaldun berriak “benetako euskararik” ez dakitelako; euskaldun zaharrak “etxeko euskara” baino erabiltzen ez dutelako; helduek “lokalismoak” darabiltzatelako, eta gazteenek “euskañola” dakitelako, euskaraz ondo jakitea ezinezko lana bihurtzen delakoan daude elkarrizketatuak.

Amaitzeko, ikerlanak elebitasunaren inguruan dihardu, elkarrizketatuen artean horren aldeko jarrera nagusi dela azpimarratuz. Izan ere, ikerketak erakusten duenez hizkuntza batetik bestera salto egitea “normalizat” jotzen da eta hizkuntzaren kalitatean itsutu beharrean horrela aritzeak komunikazioa errazten lagun dezakeela defendatzen dute askok.

Diskurtso hauen jitearen garrantziari aurrerago helduko badiogu ere, ikerlanek agerian jarri dute euskararen inguruan gizartean maneiatzaren diren diskurtsoak ugariak direla eta, oro har, euskararekiko positiboak diren diskurtsoen aldeko joera gailentzen bada ere, uste baino sendoagoa izan daitekeela euskararen inguruko diskurtso mesfidatiak darabiltzatenen sarea.

Aldekoa edo aurkakoa izan, sare hori ezer ezetik ez dela sortzen ulertu behar da, eta euskararen aldeko ahaleginak egiten dituztenak bezainbeste gaitasun (edo gehiago) dutela horren aurka dabilzanak. Izan ere, batetik, ikerketek erakutsi dituzten diskurtso horietako bakoitza elikatuko duen egitura mediatiko, judizial, sozial, politiko eta kultural bat dago komunitatearen baitan. Baina horrekin batera, bestetik, ez da ahaztu behar entitate guzti horiek (eta ondorioz diskurtso guztiek) ez dutela botere eta gaitasun bera izango, eta gizartean batzuek eta besteek duten arrakasta, oihartzuna, iraupena eta zilegitasuna desberdina izanik, diskurtso horien ondorioak ere desberdinak izango direla.

2.2. Diskurtsoak eta errealitate sozialaren eraketa

Lana kokatzeko ezinbestekoa da honako galderari erantzuten saiatzea: zeintzuk dira diskurtso batek gizartean eragin ditzakeen ondorioak? Zertan datza, zehazki, diskurtso baten gaitasuna?

Historikoki, lengoaiaren filosofiak errealitatearen islatzat ulertu izan du lengoaia. Zeinu eta sinboloen bidezko adierazpenak egitura sozialetik bereiziak dauden errealitate bezala hauteman dira eta lengoaia subjektuak munduaz hitz egiteko eta honi zentzu bat emateko erabili duen tresna bezala ikusi da. Ikuspegi honen arabera, a) subjektua munduaren esanahien sortzaile gisa hautematen da; b) mundua harreman eta errealitateen elkargunetzat jo da; eta c) lengoaiari kanpo errealitate eta subjektuaren arteko lotura ahalbidetzen duen bitartekari lana egotzen zaio (Bekerman, 1996). Denbora luzean hori izan da lengoaiaren inguruan indarrean egon den ikuspegia, eta ez da kontuan hartu subjektua, lengoaia eta munduaren (sistemaren) artean beste inolako loturarik zegoenik -edo egon zitekeenik- (Goikoetxea, 2010).

Sistema/lengoaia/subjektu ikuspegi honi jarraituz garatu dira lengoaiari buruz sortu diren lehenengo teoriak. Ferdinand de Saussurek (2004), esaterako, lengoaia eta errealitatearen arteko harreman zuzen horri jarraitzen dio *language* eta *parole* arteko bereizketa ezaguna proposatzen duenean. Batetik, mundua, lengoaia eta subjektua beraien artean independenteak diren izate gisa hautematen ditu eta lengoaiari errealitatea “den bezalakoa” ordezkatzeko gaitasuna aitortzen dio. Bestetik, ordea, esanahiak hitzei ez dagozkiela proposatzen du aurrenekoz; lengoaia berau osatzen duten harremanen arabera aldagarria izan daitekeela ulertzen baitu, eta ondorioz, zalantzan jartzen du errealitatearen zentzua subjektuaren kontrolpean dagoenik beti.

Ildo beretik, Roland Barthesek (1985) lengoaia ez du kode garden gisa ulertuko. Horren ordez, hitzen bitartez adierazten duena baino esangura zabalagoa duen elementu baldintzatu

eta baldintzatzaile gisa hautematen du. Lengoiaren ikuspegi errealistatik urrunduz, beraz, errealtate oro gizartean dauden diskurtsoetatik ontologikoki banaezina dela defendatuko du.

John Langshaw Austinek (1981,1988) ere, ikuspegi bera baliatuko du, eta lengoaia eta errealtatea bereizi ezin direla aldeztuko du. Egileak proposatuko duen “hizketa-ekintza” teoriak (*speech act*) egoera jakinetan esaldi edo *hizkera unitateak* errealtateak sortzeko gaitasuna dutela defendatuko du. Adibidetzat jarriko du apaizak bikote bat “senar-emazte” gisa izendatzen dituenen bikote hori errealki senar-emazte bihurtzeko gaitasuna duela; edota inork “zin dagit” edo “barkatzen zaitut” dioenean, hitz horien bidez zerbait *esateaz* batera, zerbait *egiten* ariko dela aditzera emango du aurrenekoz. Austinen ustez, beraz, komunikatzeak ez dakar soilik informazioa transmititzea, baita errealtatea (ber)sortzea ere. Baldintza jakin batzuetan igortzen den formulazio linguistikoak (apaiz batek Eliza batean esaten duenak, kasu) enuntziatua helarazi aurretik existitzen ez zen ahaltsun performatibo bat duela defendatzen du (Saez Rueda, 2002), eta ondorioz, hitz horiek ahoskatzean errealtate berri bat sortuko litzateke, edota aurrez zegoena aldatu.

Ikuspegi honekin bat datorren korronteak indarra hartuko du 60-70.hamarkadan, Jackes Lacan (2008), Michel Foucault (2003) edota Jackes Derridaren (1989) ekarpenen bitartez ikuspegi postestrukturalistaren eraketa bultzatzen den heinean. Egile hauek estrukturalistek defendaturiko ikuspegi sistemikoa egozten jarraitzen diote lengoiari oraindik, non lengoaia mugatua eta baldintzatua dela ulertzen duten. Baina egitura beraren ezaugarriei ordu arte emaniko garrantzia baztertu egiten dute eta egitura horien eraketaren nolakotasunean hasiko dira arreta jartzen. Ikuspegi honen aldeko autoreen ustez errealtateko egiturek zedarrituriko praktika eta lengoiak gauzatzen diren unean, egitura bera ere “gauzatzen” ariko da. Hortaz, lengoiak errealtatea eratzeko duen gaitasunean oinarritzen da perspektiba honen planteamendu nagusia: diskurtsoak errealtatea irudikatzen duen heinean eraiki ere egiten duela esanez. Hartara, errealtatea lengoiarik gabe ulertzea eta barneratzea ezinezkoa dela aintzat ematen dute (Echeverria, 2003).

Errealtate soziala diskurtso bidez eratzen dela defendatzen duen hausnarketa korronte berdinean oinarritzen da lengoiak subjektua osatuko duelako ideia ere. Ordu arte nagusi zen subjektu aurre-osatuaren ideiarekin kaltetan, subjektua eta egitura elkar eratzen eta elikatzen diren interakzio jarrai baten ustea indarra hartzen joango da.

Hausnarketa hauen baitan Austinek irekitako bidea zabaltzen du Judith Butlerrek (2001,2009), zeinak lengoiari aldi oroko gaitasun performatiboa esleitzen dion. Abiapuntu gisa hartzen du Derridak defendatzen duen diskurtsoaren errepikakortasunaren ideia (*iteration*) eta errealtate sozialaren performazioaren muinean errepikapena dagoela defendatuko du. Hartara, errepikapen hauekiko erreflexibotasuna aldarrikatzen du errealtatearen erreproduktzioa eta subjektuaren identitatea iraularazteko irtenbide gisa. Bide honi jarraituz, Michel Pêcheux-rentzat (1978, 1978b) adibidez, subjektua ezarria dagoen egitura sinbolikoaren menderakuntzaren ondorio izango da; lengoiaren eta horren bidez sortutako diskurtso eta ideologiaren emaitza izanik.

Ikuspegi horretatik, diskurtsoek subjektuak eratzeko duten gaitasuna diskurtsoen alde ideologikoan kokatzen delako ideia zabaltzen hasiko da. Hots, diskurtsoak ideologiaren alde materiak gisa hautematen hasiko dira. Honen arabera, beraz, subjektuak ideologia sortuko

luke, ideologiak subjektua sortzen duen modu bertsuan (Althusser, 2005), hasiera punturik gabeko birsortze prozesu jarrai batean. Prozesu honen baitan gertatzen denak prozesuari berari dagokiola ulertu behar da beraz: bere praktiken bidez (praktika modu zabalean ulertuta, orotariko ekintza sozial gisa) subjektuak ideologiak sortuko lituzke, ideologia horiek diskurtsoen bidez erreproduzituko dira eta erreproduzio hori subjektua (bir)sortuko duten praktikan gorpuzten da. Edo bestela esanda, subjektuak egingo dituen praktika guztiak diskurtso (eta ondorioz ideologia) bati atxikiak egongo dira ezinbestean, eta beraz, diskurtsoak subjektuak eta honek errealitatea ulertzeko duen begirada eta gaitasuna eratuko lituzke.

Hausnarketa hauen ekarpen handienetarikoa bat izango da subjektuak esanahi guztien iturri izateari uzten diola: esanahiak ez du zer ikusirik subjektuak erabiliko dituen elementu linguistikoekin, baizik eta dagoen esfera ideologikoarekiko koherenteki sortutako diskurtsoekin. Diskurtsoak ez dira, hartara, subjektu psikologikoetatik ateratako errealitateak (Cournite, 1981); aitzitik, ideologia bati erantzunez, subjektuen praktikak baldintzatzen dituen mundu ikuskera oso baten isla dira (Foucault, 2003).

Diskurtsoa, beraz, diskurtso sistema (Foucault, 2003,2010) bezala ulertu behar da: testuinguru jakin batean errealitatea modu zehatz batean hautematea eta ondorioz performatzea dakarrena, eta egite horretan, diskurtsoak oin hartzen duen ideologia erreproduzitu, errealitate soziala birsortu eta subjektua osatzen duena.

“El punto de vista crea el objeto, de forma que todos los objetos se convierten en discursos convenientes, en formas de hablar que multiplican los objetos discursivos, y los mundos posibles suspendiendo así la independencia de lo real, entendido como aquello que es externo al sujeto”¹ (Pêcheux, 1978:119)

Diskurtsoa, beraz, hitzen eta esanahien arteko adierazpen soila izatetik urruti, gizarte dimentsio desberdinak eratzeko gai izango da: marko kontzeptualak, ezagutza objektuak, subjektuak bai eta harreman sozialak eratuz bere bidean (Foucault, 2003,2010). Egite horretan, hala, hizkuntzen gaineko diskurtsoek hizkuntza bera ere osatzen dutela ulertuko genuke, hizkuntzari ematen zaion markoa ez ezik, subjektuen praktikaren bidez (hizkuntzaz hitz egitea eta hizkuntza hitz egitea) performatzen bukatuko dutelako. Hots, hizkuntza bat, beste hainbat gauzen artean, hartaz esaten den hori ere izango da.

2.3. Umorea, diskurtso moduan

Sarritan ahaztu egiten dugu forma anitzetako diskurtsoekin topo egin dezakegula gizartean. Izan ere, diskurtsoaz hitz egiten dugunean idatziz edo ahoz helarazitako esaldien bidez adierazten den mezu hori datorkigu burura eta bidean galduta geratzen dira plastikoagoak izan daitezkeen bestelako adibideak: marrazkien, argazkien, keinuen, praktiken edo ikus entzunezkoen bidez helarazten direnak, esaterako.

¹ [“Ikuspegiak objektua sortzen du, eta beraz, objektu guztiak komenigarri diren diskurtso bilakatzen dira, objektu diskurtsiboak eta posible diren munduak biderkatu arazten dituzten hizkera, subjektutik at dagoen zerbait lez antzematen den errealaren independentzia bertan behera utziaz.”]

Umorea izan daiteke horietako kasu bat. Egunerokoan etengabe jaso eta erabiltzen dugun praktika bat izanik ere, gutxitan jabetzen gara bere bizkarrean dakartzan diskurtsoez, eta kosta egiten zaigu umoreak gure ingurua edo gu geu aldarazteko gaitasunik duenik pentsatzea. Maiz egozten zaion hutsaltasun eta xalotasunaren eraginez, umoreak dibertimendutik edota atsegina sortzetik haratago funtziorik betetzen duenik ez dugu uste izaten eta lasaitasun horretatik, gupida gabe erabiltzen dugu maiz. Baina umorea gizartean erabiltzen dugun baliabide komunikatiboa den neurrian, bere baitan gordetzen ditu beste edozein praktika sozialek izan dezakeen konplexutasun eta potentzialtasuna.

Praktika soziala dela diogu, eta ez debalde. Batetik, umorea *soziala* da komunitatean sortua eta birsortua den jarduera delako. Edo bestela esanda, ikuspegi psikologikotik abiatzen diren hainbat egilek diotenaren aurka, umorea ez delako ekintza naturala edo berezkoa; baizik eta ikasitakoa.

Barre (ezpainak tenkatzeko keinua) egiten imitazioz ikasten badugu ere (eta hori bai egin dezakegula besotako haur garen unetik), keinu hori noiz egin edo ez egin; zein gai edo pertsonaren inguruan; zein egoeretan; edo nola (zein forma emanaz) taldean irakasten zaigun ezagutza da. Umorea subjektuen artean partekatua eta erabilia da, gizarte edo komunitate bateko esparru kulturalaren parte den jarduera den heinean, eta hain zuzen ere horregatik kosta egiten zaigu atzerrikoak direnen (eta bereziki mendebaldar gizartekoak ez direnen) umorea ulertzea. Oso konplexua da ezagutzen ez dugun kultura, mitologia, erlijio, politika, historia, estereotipoak edota bestelako erreferentziak darabiltzan umore batekin barre egitea, sinpleki igorri nahi duen mezua ulertzeko aski heldulekurik ez dugulako.

Gizartean ikasia eta irakatsia izateko, halaber, umorea *praktikatu* egin behar da. Hau da, gerta dadin subjektuen arteko interakzioa ezinbestekoa da. Baina esan berri dugunaren ildotik, praktika soziala partekatua izan dadin (kasu honetan barregarria suertatu dadin) praktika horrek ulertua izan behar du aurrenik, eta ez soilik umoreak darabiltzan hitzak konprenitzen direlako, baizik eta umore horrek zentzua izan behar duelako darabilten subjektuentzako. Horretarako, ezinbestekoa da interakzio horretan dauden indibiduoek antzeko gizarte ikuspegiak partekatzea (balio, beldur, uste, nazka, aurreiritzi, afinitate...) bertsuak partekatzea (Bergson, 2008).

Urteen poderioz, gainera, komunitate bereko kide direnek umore praktika hori "naturalizatu" egingo dute. Izan ere, zerbaitek grazia egin eta barrezka hastean ez da (apenas) hausnarketarik egiten. Ez da pentsatzen ea esan zaigun hori gustukoa dugun edo ez eta horren arabera barre egin nahi dugun edo ez. Horren orde, modu espontaneoan erreakzionatzen dugu, entzun edo ikusi dugun txiste horrekiko gure atsegina berehalakotasunez erakutsiz. Umetatik barneratzen joandako errealitate ikuspegi (ideologia eta diskurtso sistemen) ondoriozko erreakzioa da hori. Munduan aritzeko eta hori ulertzeko umeetatik modu jakin batzuk barneratu izanaren ondorio eta horretan trebatzen egunero ibiltzeak laguntzen gaitu bat-batekotasun hori eskuratzen. Haurretatik ikasitako mundu sozialarekin (zer den ona, zer desira-gaitza; zer sakratua eta zer profanagarria; zein heroia eta zein borrero; zer itsusi eta zer eder...) komunztaduran eraiki baita gure egunerokoa ere.

Gizartean ikasiak eta partekatua diren praktika sozial guztien moduan, beraz, umorea ere diskurtso gisa hauteman liteke (diskurtsoa ulertzeko zentzu zabalenean). Hala, umorea

ezaguna dugun oinarri batetik abiatzen da (gure eguneroko partekatua inguruko irakurketatik) eta horren gaineko mezu bat igorriko du. Edo bestela esanda, umoreak beti esango du “zerbait”, eta ondorioz, beti erantzungo dio aurre ezarria dagoen ideologia (uste edo aurre-usteren) bati.

2.4. Umorearen eragin sozialak

Baina gizartean partekatua dagoen aurre-usteekin lotua egoteak ez du esan nahi hori denik bere gaitasun bakarra. Umorearen diskurtsoak ugariak izan daitezkeen modu berean izango baitira bere ondorio sozialak ere, egile desberdinek egindako ekarpenetan ikus daitekeelarik aniztasun hori.

Ezagunak dira, esaterako, Gary Fineren aitortpenak, zeinak (Fine, 1984 umorearen funtzio nagusia harreman sozialak sortu edota aurrez zeudenak sendotzekoa dela adieraziko duen. Autorearen esanetan, umorea talde kultura jakin bat eratu eta definitzeko baliagarria da, “besteen” (taldekide ez direnen) inguruan konspiratu, talde barneko konplizitatea sendotu, elkarrekiko distantzia sozialak murriztu eta identitate komun bat indartuz. Hain zuzen ere, talde identitatearen eraketarako oinarrizko elementuetako bat dela aipatuko du, identitate horren ezaugarriak zehazten lagunduko duena: talde barruko “arauen” edo “egin behar diren” eta “egin ezin diren” horien muga finkatzen lagunduz (Robinson eta Smith-Lovin, 2001). Umorearen jarrera bikoitz horretan indar egingo dute beste hainbat egilek ere: batetik, kohesio soziala sortu eta indartzeko balio duela defendatuz, eta bestetik, mailaketa sozialak bistaratu eta elkar banatuak mantentzeko gaitasuna ere badutela agerian jarritz (Kothoff, 2000; Mulkay, 1988).

Azken ideia honi lotuz, zenbait egilek defendatu dute umoreak immobilismo soziala sortzeko balio dezakeela. Hots, gauzak “bere horretan” mantendu arazteko gaitasuna duela. Rose Coser-en lanak, esaterako (Coser, 1959), ospitale bateko lan-bileretako umore erabilerak aztertzen ditu, txiste kantitate eta noranzkoa lanpostu maila desberdinek duten hierarkia sozialarekin alderatuz. Emaizta argiak ateratzen ditu azterketa horretatik: lan-talde bakoitzak (medikuak, residenteak eta erizainak) beraien posizioa besteen aurrean defendatzeko, haiek baina “maila baxuagoagoko” lan taldeen inguruko bromak egiten dituztela dio. Autoreak, hala, ordenu soziala bere horretan mantentzeko gaitasunean, umoreak talde sozialen arteko higiezintasuna bultzatzen duela defendatzen du. Hots, gremio bakoitzeko indibiduoek jaso eta egin ditzaketen bromen erabateko kontzientzia izanik, gremio horren (eta ez beste inoren) parte direlako kontzientzia ere erakusten dute, eta darabilten umore joerak posizio (gremioaren maila) hori defendatu eta horretan tinkotzea bultzatzen dute. Egilearen ustez, horrenbestez, umoreak “jendea bere lekuan mantentzeko” gaitasuna du: posizio sozialen mugiezintasuna finkatu eta posizio berekoak ez direnen lepotik taldekideen arteko kohesio soziala indartzeko baliagarria izanik.

Mailaketa sozialaren ideia horretatik, gizarteko boteredunek eta menpekoek egiten duten umorearen arteko desberdintasuna abiapuntutzat hartzen dute zenbait egilek, botere posizioetatik egindako horren ondorioetan sakonduz. Alfred Radcliffe-Brown antropologoak, adibidez, mendebaldarrak ez diren kulturetan eginiko ikerketei esker ondorioztatzen du, boterea dutenek bultzatzen duten umoreak gizartearen tentsioak askatu edota kudeatzeko

baliabidea dela, egitura soziala hankaz gora jar dezaketen egoera larri edo muturrekoak lasaitu eta ordenua bere horretan mantentzen laguntzen duena (Kuipers, 2015:368). Zenbait hamarkada beranduago gizarte industrializatueta egindako halako ikerketek arrazoia ematen diote egileari, umoreak gatazkatsuak diren egoeren inguruko bromen bidez horiek neutralizatzeko gaitasuna duela jartzen baitute agerian Pamela Bradney (1957) edo Andrew Sykes-en (1966) lanek. Antzeko irakurketak indartzen du Mulkay-ek ere umoreak bizitza soziala osatzen duten hainbat tabuen edota inkongruentziaren inguruan hitz egiten lagun dezakeelakoan baitago azken hau. Gizartean nahasitza, gatazkatsutza edo anbiguotza jotzen diren ideiak edota egoerak helarazteko eta publikoan nolabait “eztabaidatzeko” aukera eskaintzen duela dio egileak, umoreak bizitza sozialaren alde kontraesankorrenak plazaratzeko aukera ematen duelarik. “Eztabaida” horiek alegiazkoak izango dira, ordea. Boteretik egindako umorez gauza asko ukitu edo mugituko baitira ustez, finean ezer ez esan eta gauzak bere horretan uzteko.

Antzeko ikuspegia baliatuz, badira umorea kontrol sozialerako erremintatza jotzen duten autoreak ere. Powellek (Powell, 1988b) proposatzen duen sailkapenean, esaterako, umoreak “zuzentzaile sozial” gisa funtzionatzen duela azpimarratzen du. Egilearen esanetan umoreak gizarte batek “anomalotza” edo “desbideratutza” jotzen dituen joerak birbideratzeko gaitasuna du, joera horiek ahalketza erakutsi eta aldarazteko nahia gizarteratzen lagunduz. Berdintsua argudiatzen du Michael Billig-k ere (Billig, 2005), umorea lotsatzeko modukotza jotzen dena seinatu eta hori baztertzeko gogoia pizten duela adierazten baitu, funtsean, “normaltasun” jakin bat indartu eta arau sozialak onartu eta mantentzeko baliabide gisa funtzionatuz.

Laburbilduz, botere-harremanen ikuspegia aintzat hartzean ikus liteke nola botere posizioetatik egiten den umoreak gizarte egitura bere horretan mantentzearen alde egiten duen, horretarako baztergarrizta edo desiragaitz gisa jotzen diren (botereak jotzen dituen) errealitate sozialak umore bidez kolpatuz. Horrek, batetik, errealitate (talde sozial, praktika, diskurtso) hori baztertzea ekarriko luke; eta bestetik, *alter ego* harreman horren bidez (“gu ez gara hori”, “guk ez dugu hori egiten”, “guk ez dugu hori desira”) norberaren talde identitatea elikatu eta elkarren arteko harremanak sendotuko lirakeke taldetik kanpo dagoen errealitate horren kaltetan. Boteretik egiten den umorearen erabilera honek, beraz, botereak duen ikuspegiarekin koherenteak diren eta botere horri zilegitasuna emango dioten ideiak, irudikariak, eta finean, diskurtsoak baliatuko ditu.

2.5. Umorearen oinarri komunak

Ikusi berri ditugun egileak umorearen inguruan idatzi dutenatariko batzuk baino ez dira, eta nahiz eta umoreak beste iker objektuek baino pentsalari gutxiago izan dituen oro har, historian atzera eginez gero antzeman liteke adituen kopurua biderkatu egiten dela azkar. Iker objektu “ezegonkorra” eta “iheskorra” izan da, nolana ere, eta egileen iritziak oso anitzak (eta sarrienean kontraesankorrek) izan dira haien artean.

Umorea ikertu, eta bereziki, aztertu ahal izateko, ordea, umore kategoriaren gaineko gutxiengo irizpide batzuk finkatzea ezinbestekoa da, umorea bera zer den ulertzera iritsiko ez bagara ere, errealitate honetara zerbait gehiago hurbiltzen lagunduko baikaitu horrek. Hori

horrela, gaiaz idatzi duten autoreen lanak orraztu eta horien arteko gutxiengo komunak atera dira, eta horri esker ikusi da diskurtsoak igortzeko garaian errepikakorra den barne egitura bera darabilela beti umoreak (Anduaga, 2016). Barne egitura horrek hiru elementu nagusi izango ditu, ikerlan honetan horietan sakonduko ez bada ere, argi izatea komeni direnak.

1-Gozamena:

Umorearen gainean dauden askotariko ikuspegiak elkarrekiko aurkakotasunez aritzeak estali egiten du maiz komunean duten ezaugarri oinarritzkoenatariko batzuen ebidentzia. Izan ere, hasiera batean hautematen ez bada ere, egile guztiek umorearen inguruan ikuspegi partekatu bat maneiatzen dute: gehiago edo gutxiago, guztiek ematen baitute aintzat umoreak plazera ematen duela.

Umorea beti lotzen da norbaiten ongi izate, atsegin edo dibertsioarekin. Hori hartzen da, inplizituki bada ere, oinarri gisa eta horren gainean, ondoren, erantsi egin litezke sufrikarioa, bazterketa, talde kohesioa, lotsa, liberazioa... eragiteko bestelako gaitasunak.

Egia da, ordea, atsegina izatetik irain izatera igarotzeko duen erraztasuna nabarmena dela edota batzuentzat atsegina dena beste batzuentzat birao izan daitekeela. Kasu horretan ere botere harremanak hartu beharko genituzke kontuan, horiek izango direlako inguru arautu eta normalduan (normalki esparru publikoan) egitea zilegi den umorea zein den zehazteko gaitasuna izango dutena. Eta hain zuzen ere botere sistema arduratuko da umore batzuk hauspotu eta beste batzuk baztertzeaz (zentsuratzeaz), azken horiek umorea ez beste “zerbait” bailitzan birdefinituz: iraina, diskurtso politikoa edo terrorismoari gorazarrea, esaterako.

2. Haustura

Horrela izendatu dugu autoreen lanek inplizituki umoreari egozten dioten bestelako ezaugarria; errealitatearen ohiko interpretazioan sortzen duen desdoia, hain zuzen ere.

Umoreak duen ezaugarri bereziena, gauzak adierazteko duen modua da. Igortzen dituen diskurtsoak ez dira esplizituki adierazten, ez da horien inguruko zuzeneko aipurik egiten, baizik eta zeharka ematen du horien berri. Horretarako *haustura* bat sortzen du umoreak; hau da, aurreikustea zaila den gertaera edo ezusteko bat.

Umorea, normalki, ezaguna egiten zaigun errealitate baten kontakizunetik abiatzen da (guretzat “normala” den zerbaitetik) eta errealitate horren gainean ezusteko bat sartuko du; errealitate hori ulertzeko dugun moduari ez dagokion bestelako soluzio edo irakurketa bat. Adibidez, txiste baten lehen zatia dugu hau: “Kartzelara iritsi berria den batek beste bati galdetzen dio: Eta zu zergatik zaude hemen?”. Orain arte dena ulergarri zaigu, badakigu zer den kartzela bat, ulertzen dugu galderaren testuingurua, eta galderaren zentzua ere bai. Honela erantzuten dio txistean preso dagoen beste kideak: “Ateratzen uzten ez didatelako”. Galderari erantzuteko ez ohiko modua da honakoa, eta erantzuna ulergarria eta galderarekiko koherentea bada ere, ezustekoa dakar berekin, galdera horri zifraren batekin erantzutea litzatekeelako *zuzenena* (bi urte, bost edo hamar). Kasu honetan erantzun horretan datza hausturak, eta horrekin batera baita txistearen muinak ere.

Hala, “normal” eta “anomalotzat” jotzen dugunarekin jokutzen du hausturak, oreka horretan konbinaketa eta forma ugari har ditzakeelarik (hitz jokoak, uste gabeko irteerak, hiperboleak...). Ulertzen da, beraz, ez dagoela haustura gabeko umorerik.

3. *Distantzia*

Distantzia deitu diogu umoreak berak darabilen egiturari, hots, zerbait esateko, azpimarratzeko, argitara ekartzeko edo besterik gabe, aipatzeko jarduerari.

Egile desberdinek egiten dituzten irakurketak kontuan hartzean ikusi da autore guztiek aintzat ematen dutela umoreak beti dioela zerbait, eta beti “nonbaitetik” esaten duela. Egile batzuen ustez umorea norberaren buruaz edo taldeaz aritzen da; eta beste batzuek, aldiz, umorea gainontzekoei egiten zaiela defendatuko dute. Badira umorea goraipatu nahi den horren inguruan diharduela diotenak; eta badira aldatu beharrekoa azpimarratzen duela esaten dutenak ere. Batera edo bestera izan, kontuan izan behar da umoreak beti igortzen duela mezu edo iritzi bat eta hori egiteko abiapuntu bat finkatzen duela kasu guztietan. Hau da, “normala” zer den finkatzen du (hori du bere kokagune eta abiapuntua) eta ikuspegi horretatik seinalatuko du “anomaloa” zer den, errealitate hori ikusmiran jarri eta arrunta den “normaltasun” horretatik bereiziz edo desberdinduz.

Ariketa horri *distantzia* deitu diogu guk eta honakoa ere umorearen oinarritzko ezaugarri gisa aintzat hartzen dugu.

Finean, beraz, ulertzen dugu umoreak zerbaitekiko *distantzia* sorrarazten edo bultzatzen duela errealitate sozialen inguruan diharduen momentutik, errealitate horiekiko *haustura* joko bat proposatuz *gozamina* sorrarazten duen praktika sozial batean. Eta praktika sozial horretatik, hain zuzen ere, errealitateen (horien artean euskararen) gaineko diskurtsoak helaraziko ditu, horiek performatzeko gai diren ondorioak bultzaraziz.

Hala, diskurtsoek errealitate eta subjektuan eragiten dutela jakinik, eta umorea ere diskurtso bat dela aintzat hartuz, euskararen inguruan zer nolako diskurtsoak (umorezkoak eta bestela) helarazten diren eta horien arteko antzekotasun/desberdintasunak nolakoak diren ikustea izango da hurrengo urratsa.

3. Azterketaren nondik norakoak

Ez dira asko umore diskurtsoen inguruan egin diren ikerketa lanak, eta are nabarmenagoa da hutsune hori diziplina soziolinguistikotik egin direnak aintzat hartzen badira. Gaiaren inguruko ikerketa bat aurrera eramateko oztopo metodologiko nabarmena da hori, izan ere, helduleku teoriko eta aurrekari gutxiko iker eremua izateak zaugarri bihurtzen baitu honako proposamena.

Gabezia teorikoa osatzeko, beraz, oinarri gisa hartu da *“Herri Barrez: Umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua”* izenburupeko doktoretza tesi lana (2016). Egileak berak burutua, ikerketa hark umore diskurtsoek euskal nazioaren irudikarien sorreran zuten inpaktua nolakoa eta zenbatekoa zen aztertzea zuen xede. Horretarako, batetik, maila teorikoan sakonki aztertu behar izan zen umorea zein nazioa kategorien esanahia, eta horiek ikertzeko (eta elkarren artean uztartzeko) sare teoriko trinko bat osatu zen. Horrekin batera, landa lanean esparru sozial anitzeko umore diskurtsoek osatu zuten lagina eta horien azterketa kategoria desberdinen arteko sailkapenak bideratu zuen. Mamitsua izan zen bertatik ateratako edukia eta etorkizunean jorratzeko hainbat iker lerro zabaldu zituen. Horien artean bat, euskararen inguruko diskurtsoekin zer ikusia zuena.

Tesia amaitu osteko behar horri erantzuten dio (neurri batean, bederen) honako hausnarketa lan honek. Euskararen eta umorearen arteko lotura diskurtsiboa (eta performatiboa) agerian jartzea bilatzen baitu 2016an egindako lanaren errauntsak abiapuntutzat hartuz.

Hori horrela, eta metodologiaren inguruko azalpenekin hasi aurretik, lan honetako landa lanak eta hausnarketek doktoretza tesian landutako zenbait eduki teoriko zein analitiko baliatu dituela argitu nahi da. Batetik, doktoretza tesian burututako lan bibliografikoak honako ikerketa osatzeko oinarri egonkor bat eskaintzen duelako. Eta bestetik, tesiko laginean erabili ziren umore kasuetariko asko gaur egun oraindik ere telebistan igortzen dituztenez gaurkotatunik galdu ez dutelako, eta beraz, oraingo helburuetarako ere baliagarriak suertatzen zaizkigulako.

Abiapuntua hori izanik ere, ikergaia desberdina izateak eta nazioa ikertzetik hizkuntza ikertzera igaro izanak hasierako material hori errebisatzea, egokitzea, eta batez ere, irakurketa eta hausnarketa berriez osatzea ezinbestekoa izan da. Horretaz gain, lan honetan urrats bat harago eman nahi izan da eta umore bidez euskararen inguruan esaten diren diskurtsoak aztertzeaz gain, diskurtso horiek beste batzuekin alderatzeko ahalegina ere egin da. Zehazki, ETB1 eta ETB2 kateek modu informalean igortzen dituzten umore bidezko diskurtso horiek Eusko Jaurlaritzak modu formalean igortzen dituen diskurtsoekin konparatu dira. Horren bidez ikusi nahi izan da esparru publikoan botere posizioetatik helarazten diren euskararen inguruko diskurtsoen edukiak zein antzekotasun edo desberdintasun duten, eta eztabaidara ekarri, diskurtso horien aldeak (baleude) zeri dagozkien edota zer ondorio izan ditzaketen gizartean.

Alderaketa honen mamia non datzan hobeto ulertzeko kontuan izan behar da Eusko Jaurlaritzak (Euskal Autonomia Erkidegoko botere gorena denak) duela bere lurralde esparruaren baitako komunikabide publikoen inguruko azken hitza eta biak entitate

desberdinak direla jakinik ere, batak bestearekiko duen lotura (edo kontrola) ukaezina dela². Horrenbestez, ulertzen dugu batak zein besteak igortzen dituzten diskurtsoak ez direla elkarrekiko independenteak diren bi organotatik etortzen, baizik eta, modu zabalean ulertuta, iturri berari dagozkion diskurtsoak direla.

3.1. Helburua eta lagina

Hausnarketa lan honen helburu nagusia eremu formal eta informalean helarazten diren jatorri bereko diskurtsoek euskararen inguruan igortzen dituzten mezuak ezagutu eta argitara ekartzea da.

Eremu edo *frame* formalak protokolo eta arau mugatu eta zehatzak dituzten esparru publikoak izan ohi dira (esparru politikoa, juridikoa, osasun esparrua, ekonomikoa...). Horietan hizkuntzaren erabilera eta horren bidez igortzen diren diskurtsoak araudi eta kontrol sozial zorrotzagoa jasan ohi dute eta “politikoki zuzena” den horrekiko loturak estuagoak izan ohi dira. Hots, zuzentasun linguistiko eta diskurtsiboak (bai eta bestelakoak ere: harremanezkoak, komunikatiboak, estilistikoak...) garrantzia handiagoa eta malgutasun gutxiago izan ohi duten inguru sozialak dira.

Aldiz, eremu informalean arau sozialak egon badauden arren, horien hertsitasuna askoz ere txikiagoa edo arinagoa izan ohi da. Kasu batzuetan, espazio horiek formalak baino intimoagoak izan ohi dira (subjektuen arteko harremanak hurbilagoak eta parekideagoak direnean, familia eta lagun kuadrilla batean, kasu). Baina ez du zertan beti hala izan behar, izan badirelako publiko zabala duten esparru informalak ere (herri bateko jaiak, inauteriak, adibidez). Esparru horietan igor daitezkeen (eta ezin diren) diskurtsoekiko kontrola erlaxatuagoa da; norberaren usteak helarazi eta horiek adierazteko modua anitzagoa (eta pertsonalagoa) izan baitaiteke eta ez dago korrekziorako hainbesteko joerarik (edo beharrik).

Ikerketa honetan, esparru formal gisa aukeratu dira Eusko Jaurlaritzaren diskurtsoak gizarteratzeko balio duten espazio edo bitarteko ofizialak: prentsaurrekoak, jendurreko ekitaldiak, blog ofizialak... Zehazki, Jaurlaritzaren ikuspegi eta jokatzeko moduak oinarritzat hartu eta horien araberrako diskurtsoak helarazten (eta gorpuzten) dituzten eledun zilegituen hitzak bilatu dira. Beti ere, noski, euskararen inguruan hausnartzen duten diskurtso horietan arreta jarritz. Laginerako hautatu diren adierazpenen eta testu zatien inguruko zehaztasunak Eranskinen atalean daude ikusgai (6.1. Lagina).

Bestetik, esparru informal gisa aukeratu dira ETB1 eta ETB2 kateetan igortzen diren umore saioak; zehazki, Vaya Semanita (ETB2 2013-2016) eta Irrikitown (ETB1 2014-2016). Izan ere, batetik, ulertzen dugu entretenimendurako saioak izanik, zenbait arau soziali men egiten badiete ere, horien edukiak ez dutela formalismo eta zuzentasun arau zorrotzik jarraitzen oro har, eta ondorioz, esparru informal gisa hauteman daitezkeela (gauzak adierazteko eta diskurtsoak helarazteko askatasun gehiago dagoen esparru moduan). Eta horrekin batera, bestetik, diskurtso horiek umorez helarazten direnez, “politikoki zuzenak” ez diren diskurtsoak igortzeko askatasun handiagoa dagoela ulertzen dugu; hain zuzen ere, inorentzat mingarriak

² Ikus eranskina: 6.2. Eusko Jaurlaritza eta EITBren arteko kontratuaren zenbait atal

izan litezkeen edukiak umorea delako aterkiaren bidez babesten direlako. Kasu honetan ere, euskarari dagozkion diskurtsoak darabiltzaten bromei eman zaie lehentasuna, horiek baitira, hain zuzen ere esparru formaleko diskurtsoekin alderaketa egitea ahalbidetuko digutenak.

Baina horretaz gain, esparru informaleko umorean egiten den hizkuntzaren erabilerari ere erreparatu zaio. Izan ere, esketxen behaketak erakutsi digu zuzeneko diskurtsoen bidez ez ezik, euskararen inguruan egiten den zeharkako erabileraren bidez ere, hizkuntzaren inguruko diskurtsoak eta mezuak igortzen direla. Hala, “zeharkako trataera” izendatu dugun atalean, esketxetan egiten den euskararen erabilera aintzat hartuz (hizkuntza formak, adizkerak, fonologia...) euskararen inguruan esaten ari zaiguna ere ekarri nahi izan da argitara. Hausnarketa zati horretan, ordea, zuzeneko diskurtsoerik agertzen ez zaigunez, ez da esparru formaleko diskurtsoekiko alderaketarik proposatzen. Nolanahi ere oso kontuan hartu beharreko informazioa dela ikusirik, lan honetan hori ere aipatzea ezinbestekotzat jo dugu.

Esparru informaleko umore saioetako kasuak, jatorrian Doktoretza Tesirako bildu zirenak, 2013 eta 2016 artean jaso ziren. Aurrez aipatu bezala, adibide horiek lan honetarako erabili aurretik, bilduak geneuzkan esketxak gaur egun presentziarik ote duten arakatu da lehendabizi eta telebistan igortzen jarraitzen dutela baieztatu da horren bidez. Hala, esan genezake gaurkotasuna duten diskurtsoak izaten jarraitzen dutela oraindik ere. Hori horrela, esparru informaleko diskurtsoekin ere zabaltasunez jokatu nahi izan da, eta azken urte honetakoak ez ezik, azken bost urteetakoak ere behatu dira. Ariketa horrek erakutsi digu, batetik, euskararen inguruan esparru formaletik azken urteetan helarazi diren diskurtsoek apenas izan dutela bilakaerarik (nahiz eta kasu batzuetan biziagotu egin diren); eta bestetik, esparru informaleko diskurtsoen alderaketa egiteko malgutasun gehiagoz jokatzeko aukera eman digu. Hartara, esparru formaleko diskurtsoetan gaurkotasunari baino adierazkortasunari eman zaio lehentasuna, diskurtsoen alderaketa egiteko egokienak hautatu direlarik. Eranskinetan jasotzen da lagina osatu duten eremu formal eta informaleko diskurtsoen zerrenda zehatza³.

3.2. Metodologia eta ikerketa teknikak

“Las palabras significan mucho más de lo que dicen”⁴ (Santander, 2011:208)

Alderaketa hau burutzeko metodologia kualitatiboa erabili da. Metodologia honek errealitate sozialeko esanahien eraketaren berri izateko aukera ematen du eta erregulartasun eta joera estatistikorik bilatzen ez den ikerketetarako bereziki erabilgarria da: mundu soziala sinbolo eta esanahien bidez eraikia dagoela pentsatetik abiatzen da, eta oso egokia suertatzen da malgutasun, aldakortasun eta zabaltasun handiko ikerketa esparru berrietara lehen hurbilpen bat egiteko.

Metodologia honetatik abiatuz ulertzen dugu subjektuek ekintzak burutu eta ideiak proiektatzen dituzten espazioa sozialki ordenatua den errealitate bat dela. Horren arabera

³ Ikus ernaskina: 6.1. Lagina

⁴ [“Hitzek esan nahi dutena baino gehiago adierazten dute”]

gizabanako batek munduaz ulertu edo ezagutzen duena, hein handi batean, gizarte osoak ulertu eta ezagutzen duenaren berdintzat jo daiteke (Schutz, 1974). Ikuspegi horretatik umoreak ere errealitatearen ulermen komun baten islatzat uler daitezke; kolektibo baten iritziz, balore, beldur edo sakralizazioen adierazgarri, eta ondorioz irudikariak aztertzeak, gizarteak errealitatearekiko (euskararekiko) dituen hautemateak zeintzuk diren jakiteko modu bat dela ulertzen da.

Haatik Schutzen baieztapena egiaztat jotzen bada ere, halako interpretazioak egitean gehiegizko orokortasunetan erortzeko arriskua kontuan hartu behar da, aztertutako diskurtsoak ez baitiote ordezkarria den lagin bati erantzuten. Hala eta guztiz ere, aztertutako diskurtso horiek errealitate sozialaren parte diren heinean, errealitate “osoaren” ordezkarri ez badira ere, euskararen inguruan dauden diskurtsoen egungo egoeraren berri emateko gaitasuna dute.

Umorea ere diskurtso bat dela ulertuta (edo diskurtso gisa funtzionatzen duela, bederen), umorearen azterketa beste edozein diskurtsoaren antzera egitea egokitzat jo da. Are gehiago gaiak duen zabaltasun eta ikerketa aurrekari urriak medio, beraz aztertzeko diziplina eta teknika ortodoxoa zein den zehaztu gabe dagoela jakinik (Kuipers, 2008). Hala, umore diskurtsoen azterketa doktoretza tesian baliatutako *diskurtsoen analisisian* oinarritu da batez ere⁵.

3.3. Diskurtsoen analisisia

60. hamarkadan indarra hartu zuen *bira diskurtsibo* deitzen zaionaren ostean, diskurtsoen analisisia identitate aldarrikapen eta kultural gutxituen borroka politikoen parte bilakatu eta horren erabilera zabaldiaz eta indartuz joan da gizarte zientzien baitan. Geroztik, diskurtsoen analisisiak lengoaiak errealitatea eratzeko duen gaitasunean oinarritzen du bere planteamendua eta gizarteko iruditegia nola osatzen den ezagutzea du helburu: kategoriak, sailkapenak, ezaugarrien esleipena, “gu”-aren eraketa “besteak” baten aurrean... nola helarazten eta eraikitzen den ulertzea bilatuz (Martin, Pardo eta Whittaker, 1998).

Baina diskurtsoen analisisiak eskaini ditzakeen emaitzak oso esanguratsuak izan badaitezke ere, datuen analisirako ikuspegi honi ikertzailearen gehiegizko parte-hartzea dela eta kritika egin ohi zaio. Informazioaren analisisia burutzeko erabiltzen diren bideak ilunegiak izatea egotzi eta ikertzaileak jarraitu dituen azterketa bideen urrats guztiak erakustea eta frogatzea ezinezkoa delako kritikatu izan da. Horrek ekarri du maiz analisiaren egokitasuna eta zuzentasuna behar bezain argi erakusten ez duen analisiarentzat hartu izana. Hala, kritika horien aldekoek *edukien analisisia* proposatu izan dute alternatiba gisa.

Baina edukien analisisiak testua azter unitate minimoetan zatitu eta testuaren elementuak aurretik diseinaturiko eduki fitxa batez bidez sailkatzen ditu modu isolatuan. Eta testu oren adierazi eta adierazleak aztertzeko aukera ematen badu ere, maiz horien interpretazio mugatu bat egiteko arriskua dakar. Batetik, mezuan soilik jartzen duelako arreta, komunikazio prozesuan parte hartzen duten gainontzeko elementuetatik isolatzen duelarik

⁵ Gehiago jakiteko ikusi Anduaga, 2016.

mezuaren edukia. Eta bestetik, emaitzen estandarizazio bat bilatzen duelako eta horrek ikerketa objektua gehiegi mugatzea ekar dezakeelako berekin.

Baina ez da ahaztu behar umorea malgua eta aberatsa den diskurtso bat dela; esan nahi duen hori modu zuzenean esaten ez duena, hitzak beraien esanahi berehalakotik urruntzeko gaitasuna duena, eta beraz, modu zabalean eta testuinguruari loturik irakurri beharreko diskurtso moldea dela. Hartara, egokiagotzat jo da diskurtsoen analisia egitea (bai umore diskurtsoentzako bai eta eremu formaleko diskurtsoentzako ere). Ondokoak dira ikerketa teknika honi atzeman zaizkion abantailak:

- 1- Ez ditu ikerketa kategoriak aurrez ezartzen eta ikertu ahala kategoria horiek sortzen joateko aukera ematen du.
- 2- Diskurtsoa ukitzen eta eragiten duten bestelako errealitateak ere aintzat hartzek aukera eskaintzen du (denbora, espazioa, testuinguru historikoa edo egoera soziopolitikoa, adibidez).
- 3- Hizkuntzaz gain, komunikaziorako eta errepresentaziorako bestelako bitartekoak ere kontuan hartzen ditu, linguistikatik at dauden bestelako testuak irakurri daitezkeela baieztatuz (irudiak, kasu).

Diskurtsoen analisia, beraz, modu zabalean baliatu da, kasuan kasu malgutasunez jokatzu eta testuinguruarekiko egoerei arreta jarriaz. Kontuan hartu behar baita lan honek hausnarketa ildo bat irekitzeko borondatek gehiago duela azterketa zientifiko xahu bat egitetik baino.

3.4. Umore diskurtsoen analisirako abiapuntua

Nolanahi ere, eta umorearen azterketa irekitasunetik egin den arren, ezinbesteko izan da lana sistematizatzen lagundu duten gutxiengo irizpide batzuk ezartzea.

Batetik, aintzat hartu diren diskurtsoak “broma” gisa definitu diren horietan igorritakoak izan dira. Hots, umore praktika jakin batean (esketx batean, kasu) errealitate sozial baten inguruan jardun eta gutxienez *haustura* eta *distantzia* bat duen *gozamina* sortzeko elementu minimoa hartu da kontuan. Broma bat, hala, umore praktikaren egitura sinpleena dela ulertzen dugu.

Bromen *haustura* non kokatzen den identifikatzeko baliabide desberdinak erabili dira. Horien artean ohikoena “barre enlatatuak” kontuan hartzea izan da. Broma (eta ondorioz umore diskurtso baten “grazia”) non dagoen identifikatzea egilearen irizpide edo gustu pertsonalen hautuak baldintzatu egon ez dadin, telebista saioak berak broma non kokatu nahi izan duen identifikatzea garrantzitsua izan da. Horretarako, “barre enlatatuak” txistearen muina (*haustura*) non kokatzen den identifikatzeko azterna ezin hobea izan dira.

Bromen azterketa egin eta bertatik (edo horien bidez) igortzen diren diskurtsoak bistaratzeko, marko teorikoan aipatu diren hiru elementuak aintzat hartu dira:

1-Haustura:

Hausturen baitan bi auzi hartu behar dira kontuan. Batetik, aintzat izan behar da hausturek forma desberdinak har ditzaketela: hitz joko bat izan daitezke, testuinguruz kanpo

dagoen praktika bat, uste gabeko gertaera edo aipu bat... Bestetik, bromaren haustura areagotzeko forma horietako bakoitzak baliabide desberdinak erabili ditzakeela ere aintzat hartu behar dugu: konparazioa, metonimia, hiperbolea... Kasu honetan, ordea, helburua beste bat izanik, hausturek darabiltzaten formak ez dira neurtu eta bromak kolpatzen dituzten errealitateak (diskurtsoak/irudikariak) zeintzuk diren ikustean jarri da arreta.

2- Distantzia:

Hausturak agerian jarri dituzten jomugak (bromaren itu gisa erabiltzen diren errealitateak) abiapuntutzat hartu eta euskararen inguruan ze diskurtso igortzen diren eta diskurtso horiek igortzeko modua nolakoa den (negatiboa edo positiboa) ikusteko baliagarria suertatzen da distantzia. Honen bidez ikus daiteke bromek zein errealitatearen inguruan sortzen dituzten objektibazioak, eta beraz, zein den bromaren testuinguru “normaldu” edota “anomalo” gisa erakusten dituzten egoerak.

3- Gozamena:

Gozamenak aukera ematen du diskurtso desberdinak beraien artean nola artikulatzen diren ikusteko, eta artikulazio horretan agerian jartzen diren botere harremanak zeintzuk diren antzemateko. Gozamena bereziki baliogarria suertatzen da umore diskurtso desberdinak beraien artean alderatu nahi den kasuetan.

Hiru elementu hauek identifikatzea ezinbestekoa izan da umore diskurtsoen analisi egoki bat burutzeko. Nolanahi ere, eta analisitik ateratako emaitzen irakurketa erraztearren, lan honetan ez dira hiru atalen inguruko xehetasunak agertzen⁶. Izan ere, umore diskurtsoek duten konplexutasuna kontuan hartuz gero, eta horri zehatz-mehatz azaltzeko tartea emanez gero, lan honen egiazko helburua (diskurtsoen arteko alderaketa egitea) itzalpean gera zitekeela baloratu da. Horren ordez, beraz, umore diskurtsoen kasuan kasuko irakurketa orokor bat egin da, eta irakurketa hori esparru formalean jasotako diskurtsoarekin alderatu da.

⁶ Hiru elementu hauen inguruan gehiago jakiteko ikusi Anduaga,2016.

4. Emaizten analisisia

Ondoko kapituluak zehazten da esparru informal eta formalek euskararen inguruan igortzen diren diskurtsoen edukia zein den, bai eta eduki horien arteko aldea nolakoa den ere.

Atal metodologikoan aipatu bezala, bi zatitan banatu da hausnarketa hau. Batetik, euskararen “zeharkako trataera” landuko da. Hots, umorearen jomuga euskara ez den beste errealitate bat izanik ere, hizkuntza (eta batez ere hizkuntzaren erabilera jakin bat) broma egiten laguntzeko erabilia denean. Ulertzen dugu zeharkako egoera horietan hizkuntzaren gaineko diskurtsoak ere igortzen direla, eta beraz, garrantzitsutzat jo da horien berri edukitzea. Bestetik, euskarari umore bidez ematen zaion “zuzeneko trataera” landuko da. Hau da, euskara umore itutzat jotzen den bromen kasuak aztertuko dira eta horien bidez igortzen diren diskurtsoak landuko dira. Bigarren atal honetan esparru formalek helarazten diren diskurtsoekin egingo da alderaketa.

4.1. Zeharkako trataera

Ondoko orrietan ETB1 eta ETB2k igorritako umore esketxetan euskararen inguruan egiten den *zeharkako trataera* nolakoa den aztertzen da. Hizkuntzaren zeharkako trataera gisa ulertzen da hizkuntza, bromaren haustura sortzera iritsi gabe ere, txistearen testuingurua girotzeko edo osatzeko balio duen elementu osagarri gisa baliatzen denean. Hala, hizkuntzak ez du bromaren baitan zentraltasunik eskuratzen, baina ezinbestekoa izan ohi da bromak berak funtzionatu dezan.

4.1.1. Euskalkiak

ETB1en kasuan, ezagun denez, bertan egiten den umore guztia euskaraz igortzen da. Umoretik umorera, ordea, hizkuntzak hartzen duen forma eta ematen zaion erabilera desberdinak dira. Oro har, esketxetako pertsonaia guztiek euskara batua erabili ohi dute elkarren artean dihardutenean: pertsonaien arteko komunikaziorako hizkuntza forma aseptiko eta normatibo gisa agertzen zaigularik hau.

Zenbaitetan, ordea, euskararen erabilera “neutraltasun” horretatik atera egiten da eta euskara batua erabili ordez, esketxetako pertsonaiek euskalkiak erabiltzen dituzte elkarren artean komunikatzeko; edota zuka adizkeraz aritu ordez, hitanoa erabiltzen dute. Adiera hauek, ordea, ez dira ausaz ematen, izan ere, umore esketxetan noiz eta nola erabiltzen diren arretaz begiratzen bada, errepikakorrak diren patroiak dituztela ikus liteke.

Euskalkiak, esaterako, herri edo eskualde jakin bateko identitatea edo jatorria azpimarratu nahi denean erabiltzen da. Hala, esaterako, ETB1eko esketx batek pertsonaietariko bat bizkaitarra dela irudikatu nahi badu, pertsonaiak erabiltzen duen euskararen nolakotasuna haren jatorrira moldatzen da, eta beraz, bizkaitarra dena bizkaieraz hitz egiten agertuko zaigu beti (1).

Baina logika hau erabiltzeak alderantzizko irakurketa bat egitea ere badakar. Izan ere bizkaitarra dena bizkaieraz hitz egiten agertzen bada, esklusiboki berari dagokion hizkera

bihurtzen da honakoa, eta euskalkiak “jatorri” bat bereganatzen du. Hartara, bizkaitarrak ez diren gainontzeko pertsonaiak ez dira sekula bizkaieraz hitz egiten agertuko, ulertzen baita euskalki hau ez dagokiola haien lekuko lurralde identitateari. Errealitatearen irakurketa sinpletu bat proposatzen du honek, hizkuntza berak duen aniztasuna esanguratsuki mugatuz eta lurralde bakoitzeko euskalki bat dagoelako irudia indartuz.

Probintzien arteko banaketaz gain Hego eta Ipar Euskal Herriko muga banaketa indartzeko ere balio dute euskararen aldaera horiek. ETB2ko esketxetan iparraldeko inor irudikatu nahi izan den apurretan, doinu frantsesa darabilen euskaldun bat ageri da (2). Kasu horretan, gainera, Ipar Euskal Herrian (Hegoaldean gertatzen ez den moduan) pertsonaia lapurtarra edo zuberotarra izateak ez du haren hizkeran inolako aldaerarik ekarriko: frantses doinu eta hizkera berberaz irudikatzen baitira guztiak. Hiru lurraldeen arteko hizkuntza desberdintasunik ez egiteak Ipar Euskal Herria eskualde bakar eta homoginoa delako irudikaria indartu egiten du, eta sinpletasuna egozten dio bertako kultura eta hiztun kolektiboari.

Euskal Herriaren ezaugarri identitario handienetariko bat euskara izanik, eskualde bakoitzak zurkaitzen du berea dagokion euskalkian, eta hizkuntza aldaerak euskal nazioaren baitako lurralde bakoitzeko biztanleriaren eta kulturaren tipologia irudikatzen laguntzen du. Lurralde bakoitzak dituen ezaugarriak, kasu honetan euskalkiak, probintzia bakoitzeko desberdinak eta errepika ezinak bailiran erakusten dira, eta bidenabar, lurraldearen eta hiztun kolektiboaren segregazioan indar egiten da: “bizkaitarrak eta gipuzkoarrak edota iparraldekoak ez gara berdinak” ideia azpimarratuz.

4.1.2. *Hitanoa*

Modu berean, hitanoaren erabilera ere esketxean agertzen den pertsonaiaren ezaugarri jakin bat azpimarratzeko erabiltzen da. Zehazki, bi dira hitanoarekin lotzen diren ezaugarriak. Batetik, pertsonaia gipuzkoarra dela agerian jarri nahi izatea (3). Izan ere gipuzkoarren hizkerak euskara batuarekin antzekotasun handiak dituenenez, pertsonaien jatorri aldaketa nabarmenagoa izan dadin hikaz mintzatu ohi dira Gipuzkoari dagozkiola agerian utzi nahi diren pertsonaiek. Eta bestetik, lurraldeaz harago, pertsonaia jakin bat inguru landatar edo tradiziozko bati dagokiola aditzera eman nahi denean, hikaren presentzia nabarmen hazten da (4). Halako kasuak izan ohi dira nekazal inguruari dagozkionak (nekazariak, abeltzainak...) (5). edota herri kiroletan dihardutenen kasuan (segalaria, pilotariak...) (6). Hala, hikaren erabilera testuinguru definigarriari oso lotuta doakio, inguru tradizional edo folklorikoa izanik horren muina.

Euskarazko esketxetan ematen den zukaren nagusitasunak, beraz, bazterreko aldaera gisa erakusten du hitanoa: anomaloa edo ezohikoa den adizkera lez. Berdin gertatzen da euskara batuarekin ere, euskalkiei berezitasuna esleitzen baitie honen erabileraren nagusitasunak.

Baina ETBko esketxetan azpimarratutako apartekotasun honek euskalkiak eta hitanoa hizkuntza molde “desberdin” legez agerrarazteaz gain, ezaugarri jakin bat ere egozten die: hizkuntza molde “bereziak” erabiltzeak haiei esleituriko ezaugarriak ere “bereziak” izan

daitezen laguntzen baitu. Izan ere hizkera hori erabiltzen duten pertsonaiak oso bakanak eta partikularrak izan ohi dira esketxetan, eta exotismo hori haiek darabilten hizkuntza moldearekin lotzea ez da ariketa zaila.

4.1.3. Doinua

Umore praktiketako pertsonaiek erabiltzen duten hizkuntza doinua ere oso lotua doakio pertsonaia jakin bati esleitu nahi zaizkion ezaugarriekin, eta hitanoarekin gertatu bezala, “euskal doinua” testuinguru landatar edo jatorra duen pertsonaia dela erakusteko erabili ohi da.

ETB1ek igortzen dituen esketxetan, pertsonaiek euskaraz hitz egiten dutenean doinu leunez aritzen dira normalki, deigarria suerta daitekeen inolako berezitasun nabarmenik erabili gabe. Baina hitanoaren erabilerarekin gertatzen den modu berean, hizketan dabilen pertsonaia tradiziozko edo folklorikoa den esparru bati atxikia agertzen denean, hizkuntza doinu gogor eta indartsua atera ohi du, hitz egiteko erritmo azkarra erabiliaz eta “z”, “s” eta “r”-ak deigarriki ahoskatuz (7).

Joera hau bereziki esanguratsua gertatzen da ETB2ko gaztelaniazko esketxetan. Izan ere kasu hauetan, pertsonaia folklorizatu bat irudikatzeko balio izateaz gainera, euskalduna identifikatzeko ere ezaugarri argia izan ohi da hizkuntzaren doinua (8). ETB2k igortzen dituen edukiak gaztelaniaz izan ohi direnez, bertan agertzen diren pertsonaiak euskaldun tankera har dezaten hizkuntza doinu nabarmen bat erabiliaz agertu ohi dira. Hala, erabiltzen duten hizkera zakartua eta mugatua izaten da (sarritan biraoak txertatuz gaztelaniazko diskurtsoen artean “*Kaben zotz!*”), erdi oihuka, azkar eta trakeski arituaz eta “ch” eta “c”-k oso modu sonatuan esanaz, euskarak duen doinua haien elkarrizketetan errepikatu nahian.

Baina honako ezaugarri hauek ez dira euskalduntzat jo nahi diren pertsonaia guztietan ematen. Horren ordez, bi ezaugarriaren arabera agertu edo desagertuko dira aurrez aipatutako ezaugarri horiek. Batetik, hizketan dagoen pertsonaiaren nolakotasunaren arabera; eta bestetik, pertsonaia desberdinak aurrez aurre daudenean agerian jarri nahi diren haien arteko aldaeren nolakotasunaren arabera.

Lehenari dagokionez, doinu honen bueltan hitz egiten agertzen direnak inguru sozio-kultural landatar edo tradiziozko bati loturiko euskaldun tipologia jakin bati dagozkio. Baina kasu honetan nekazari eta kirolariez gain, bertsolariak eta lagun koadrilak ere agertzen dira (9). Aipagarria da, halaber, halako pertsonaien diskurtsoan (gaztelaniaz egiten dituzten horietan) txertatzen diren euskarazko hitzek ere testuinguru honi dagozkiola, hala nola: “baserritarra”, “arrantzale” “sokatira”, “irrintzi”, “sagardotegi”... Hala edo hola gaztelaniaz bereganatu dituen euskal hitz bakar horiek aipatuz. Honek, beste behin, euskara inguru folklorizatu horren irudikarira lotzea dakar.

Baina horiez gain, doinuak esparru politikoari ere heltzen dio. Zehazki, ezker abertzalekoa den inor irudikatu nahi denean (militanteak, jarraitzaileak edo politikariak) hizkera berezitu hau agerian jartzen da berriro (10).

Euskal doinuaren erabilera testuinguruak markatua dator ordea, eta pertsonaiei esleitzen zaien hizkera aldakorra izan daiteke inguratzen dituen egoeraren arabera. Gorago aipaturiko bigarren ezaugarriari dagokio honek beraz, erakusten digu pertsonaiek tipologia jakin bat izanagatik ez dutela “euskal doinua” zertan beti erabili. Hala, parez pare jartzen diren pertsonaien artean azpimarratu nahi den ezaugarriaren arabera agertu edo desagertuko da doinua.

Esaterako, euskal kolektiboko kide diren baserritar eta hiritar baten artean, baserritarrari egozten zaio euskal doinua, modu deigarrian jarriaz honakoa agerian (11). Baina bi baserritar (edo baserritar eta pilotari bat) elkarren artean hizketan agertzen badira, doinua leundu egiten da edo zuzenean ez da gertatzen. Berdin gertatzen da ezker abertzalekoen kasuan ere. Ezker abertzaleko kide bat bakarrik hizketan edota ezker abertzalekoa ez den beste norbaitekin eztabaidan agertzen bada, euskal doinua ageriko egiten da (12); eta alderantziz, ezker abertzalekoak beraien artean hitz egiten agertzen direnean (politikarien batzar batean, kasu) doinurik gabe jarduten dute mintzoan.

Bi irakurketa egin daitezke kasu hauetatik. Batetik, kontuan hartu behar da euskal hizkeraren ahaireaz jardutean, pertsonaiaren jatorria azpimarratzea lortzen dela, nabarmen uzten delarik bertan agertzen denetariko bat “euskaldun jatorra” dela. Eta alderantziz, doinuak presentziarik ez duenean bromaren arreta pertsonaiaren nortasuna ez den beste norabait jo nahi duelako izaten da. Baina horretaz gain, eta gorago aipatu den bezala, doinuaren agerpen/desagerpenaren logikak “ohikotasun”/“berezitasun” auzi bati ere erantzuten dio, eta oro har berezitasun hau pertsonaiaren izaera landatar, abarkadun, oinarrizko edo atzerakoia azpimarratzeko erabiltzen da. Hala, euskal doinuaz hitz egiten duten pertsonaiek, doinurik gabe aritzen direnekiko “desberdin”, “berezi” gisa agertzen dira, ohikotasunetik at geratuz pertsonaia bera eta hari dagozkion ezaugarriak; horien artean, noski, baita hizkuntza bera ere.

Horrekin batera kontuan hartu behar da ETB2n euskal doinuaz diharduten pertsonaiak “euskaldun” (edo *vasco*) gisa irudikatu nahi izaten badira ere, esketxaren baitan ez dutela zertan euskaldun izan behar. Hau da, darabilten doinuaz haratago, pertsonaiek ez dute euskaraz dakitenik agerian jartzen (euskaraz hitz egiten edo hitz egiten dakitenik adierazten), euskal doinua izateak euskaraz jakitearekin loturarik ez duelarik. Hala, euskalduna izateak ez du halabeharrez “euskara-duna” izatea suposatzen (13).

Euskal doinua izatea, beraz, euskaldunei egozten zaien ezaugarri bat da, baina *pastiche* bilakatzen dena. Alegia, izan beharko lukeen ezaugarri batean (euskaraz jakitearen) alegiazko keinu bat; euskaraz badakienaren irudi soila, pertsonaiak ez baitu hizkuntzaren gaineko bestelako ezagutzarik zertan eduki. Horrenbestez, gaztelaniaz egiten diren esketxetan euskal doinua edukitzea euskaldun jator izatearen erakusle da, hain zuzen ere euskaraz jakitea baino gehiago; eta beraz, aski da doinua edukitzea euskal kolektiboari tradizioz, kulturaz edo folklorikoki dagokion zer edo zer dela identifikatzeko.

4.2. Zuzeneko trataera

Hizkuntzaren *zuzeneko trataera* deritzo hizkuntza bera bromaren itu edo muin izaten denean: hau da, broma hizkuntzaren inguruan egiten denean. Kasu honetan zuzeneko trataera hori nola eta noiz ematen den ikusteaz gainera, eta bromaren bidez hizkuntzaren inguruan zein diskurtso helarazten zaigun ikusteaz batera diskurtsoen arteko alderaketa lan bat ere burutu da. Zehazki, ETB1 eta ETB2k era informalean igortzen dituzten diskurtsoen edukiak, gai bera modu formalean jorratzen duten diskurtsoekin konparatu dira.

Alderaketa horien irakurketak errazteko, gaien arabera multzokatu dira diskurtsoak eta horien alderaketa burutu da kasu bakoitzean; lehenik esparru ofizialeko diskurtsoak ezagutzera emanez, eta horien jarrian esparru informalekoak azalduz.

4.2.1. *Maita nazazu gehiago, erabili nazazu gutxiago*

Euskararen inguruan erabili diren diskurtso guztien artetik ezagunenetariko eta errepikatuenetariko bat aukeratu beharko bagenu, euskara erabiltzearen aldeko aldarria aipatu beharko genuke zalantzarik gabe. Euskararen erabilera izan da hizkuntza ohituretan eragiteko borondatez sarrien hauspotu den diskurtsoetariko bat. Hizkuntza naturaltasunez eta egunerokotasunean erabiltzeko deia euskara taldeek, batzordeek, udalek edota elkarteek. Ahalegin horretan ez dira atzean geratu erakunde publikoak ere, haien sareetan euskararen erabileraren alde egiten duten hainbat mezu eta lelo zabaltzen baitituzte urtero. Horien artean batzuk ezagun egin direnak: *“Esanak esan, euskara!”* (Eusko Jaurlaritza); *“Euskara gero eta hurbilago. Aire, aire euskarari!”* (Gipuzkoako Foru Aldundia); edo *“Gure artean euskaraz!”* (Bizkaiko Foru Aldundia).

Euskararen erabileraren aldeko diskurtsoak hainbat forma hartu ditu, eta sarritan, lau hitzetako esloganak baino mardulagoak izan diren testuetan ageri izan da. Jarraian aurkezten den adibidean, esaterako, 2013an Iñigo Urkullu lehendakariak Euskararen Nazioarteko Egunean esandako hitzak azaltzen dira:

“Euskaraz gozatzeko eta euskara gozatzeko erarik onena euskara erabiltzea da. Edozein hizkuntzak erabilera baitu hauspo eta arnas. Jarrai dezagun euskara gero eta jende gehiagoren hizkuntza ohizko eta egunerokoa egiten. Jarrai dezagun gure bizitza sozialean komunikazio-tresna sendoagoa bihurtzen” (Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz, 2013-12-3)

Aipu honetan esplizituki eskatzen zaigu euskara erabiltzeko. Horretarako arrazoiak ere zerrendatzen dira: hizkuntza “gozatzeko”, “hauspotzeko” eta gure artean “komunikatzeko” balioko duela ageriko eginez. Erabileraren diskurtsoari indar berdinez helduko dio hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunean ere, eta kasu honetan “zergatik” baino euskara “zertarako” erabili behar dugun gogoraraziko digu lehendakariak:

“Mugi gaitezen euskara indarberritzeko egin dezakegun gauzarik eraginkorrena eginez: erabili han eta hemen, erabili huntaz eta

hartaz jarduteko. Euskara, bizikidetzarako hizkuntza bizia izan dadin
(Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia,
Lehendakaritza, Gasteiz, 2014-12-3)

Argi dago hizkuntzaren erabilerari garrantzia handia eman izan zaiola Eusko Jaurilaritzatik, nola iraganean hala gaur egun ere⁷, euskara praktikatu eta partekatzea hizkuntzaren osasunerako muin eta ardatz gisa hautemanez.

Haatik, diskurtso honek iturri formaletan hartzen duen pisua erabakigarria bada ere, oso bestelakoa da iturri informaletan jasotzen duen trataera, hainbestearaino ezen harrigarria suertatzen den bateko eta besteko trataera hain kontraesankorra izatea.

Jarraian aurkezten dugun adibidean antzeman daiteke halako kasu bat. Bertan, ETB2k 2014ean igorritako Vaya Semanitako esketx bateko elkarrizketa zati bat agertzen da. Bertan, euskara menperatzen duen neska katalan batez maiteminduriko mutil Bilbotar bat aurkezten zaigu. Ondokoa dio mutilak neskari buruz:

“Joder con los catalanes y su amor por lo vasco! Yo llevo aquí toda la vida y ella sabe más que yo! ¿No puedo quedar mal delante de ella! A amor por el euskera no me gana ni Dios! ¿Así que para ella soy euskaldun de pura cepa! (...) Pero es que hay muchos dialectos en euskera y el “batua” es muy complicado. Además Euskaltzaindia está cambiando las cosas cada dos por tres ” (14)

Adibidearen lehen zatian, mutilak argi uzten du benetako euskalduna izateko (“euskaldun de pura cepa”) beharrezkotzat zer jotzen duen: euskararekiko maitasuna edukitzea (“amor por el euskera”). Euskara bere identitateari dagokion errealitate gisa hautematen du, eta hain zuzen ere horregatik agertzen du neska euskaldunarekiko asaldura, neska “bertakoa” (“aquí”) ez izanik ere euskara berak baino hobekiago menperatzen duelako.

Esketxaren hurrengo irudietan mutilak euskararekiko duen maitasuna aditzera emateko egiten dituenak ikus daitezke, zeinak neurriz gaineko ahaleginak izanagatik (hiperbolizazioa) irrigarriak suertatzen diren. Ahalegin horien artean, ordea, inongo momentuan ez da azaltzen euskara ikasteko borondate edo desiorik eta aditzera ematen du euskararekiko duen alegiazko maitasun hori ez dagoela hizkuntza bera ezagutzearekin (edo ezagutu nahi izatearekin) lotuta.

Esketxak euskararen inguruan helarazten duen mezuan bi ideia nagusi azpimarratzen zaizkigu. Batetik, argi uzten du hizkuntza euskal identitateari lotua doakion zerbait dela. Hasiera hasieratik “gurea”, “bertakoa” , “propioa” den hizkuntza gisa ulertzen da eta hain zuzen ere esketxeko protagonistak “berea” duen zerbait bezala sumatzen duelako egiten du horren aldeko nolabaiteko ahalegina. Bestetik, ordea, euskarari hizkuntza bizia izatearen izaera erauzten zaio; inolako funtzio edo balio pragmatikorik ez duena. Esketxa arretaz aztertzen bada, ikus liteke nola mutilak ez duen euskara eguneroko bizitzan edo harremanetan balioagarria den lanabes gisa erakusten, baizik eta esparru sentimentalean tankera emotiboaz

⁷ Gaur egun bereziki indartu den diskurtsoa da honakoa. Batez ere Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak (2017) ezagutza erabileraren oso gaineratik dagoela argitara ekarri duenetik (*Hizkuntzen erabileraren kale neurketa, Euskal Herria, 2016*)

bere identitate idealizatuarekiko atxikimendu abstraktua adierazteko ikur gisa agerrarazten du. Hau da, euskara ez da bizirik dagoen hizkuntza lez agertzen (partekatua, idatzia, entzuna eta erantzuna dena) baizik eta propioa den (bere identitateari lotzen dion) ikur bezala, maitatzearekin edo zeinu sinboliko gisa erreproduzitzen jarraitzearekin aski duena.

Euskara, hala, errealitate *zonbi* legez aurkezten zaigu: *bizirik* eta *hilik* batera dagoen hizkuntza moduan. Zonbi izenlaguna Ulrich Beck-ek erabili zuen aurrenekoz modernitateko “kategoria zonbiak” aipatzerakoan (Beck, 2006). Autoreak baliogabeak izanik ere oraindik indarrean jarraitzen duten kategoriei erreferentzia egiteko baliatzen du adiera hau. Familia, lana edo klase sozialaren esanahia era bat aldatu edo desagertu den garai batean gaudela dio, eta horrenbestez, adierak ere garai berrietara moldatu (edo horiekin desagertu) beharko lirakeela pentsatzen du. Hala, erabiltzen jarraitzen badira ere, jadanik “hilda” dauden (edo iraganeokoa diren) errealitateei dagozkion kategoria gisa ikusten ditu hauek.

Gure kasura ekarrita, ETB2ko umore diskurtsoek euskara “kategoria zonbi” gisa aurkezten dutela esan liteke. Honekin ez da euskara hilda dagoen hizkuntza denik esan nahi, baizik eta “e-u-s-k-a-r-a” hitzak ez dagokiola “bizirik” dagoen errealitate bati, jauretsi beharreko ikur soil bati baizik. Bestela esanda, esketxeko mutilak euskara nahi/maite du, baina modu idealizatuan soilik, egiazki euskara *nahi* izateak suposatzen duen guztia (ikastea, ulertzea, hitz egitea...) baztertuz. Hala, zinez maite duena ez da hizkuntza bizi bat, hizkuntza horri iradokitzen dion lotura identitarioa baizik, eta hori defendatzearen hasiko da neskarekin leian.

Haustura horrek berekin dakar modu inplizituan indartzen den beste diskurtso bat ere: gaztelania erabiltzearen normaltasuna, hain zuzen. Mutilak ez du euskara ezagutzeko beharrik adierazten, nolabait ere hizkuntzarekiko duen maitasuna agertzearekin “*euskaldun de pura cepa*” izateko aski delako beretzat. Baina horretaz gain, eta zalantzak uxatzeko, euskara ezagutzeko beharrik ez egonagatik ere euskaraz zergatik ez dakien azaltzeko parada hartzen du bere esku ez dauden “kanpo faktoreei” egotziaz ez ezagutzaren hobena. Batetik, dialekto asko izanagatik ulertzen zaila delako, eta bestetik Euskaltzaindiak euskararen inguruko arauak etengabe aldatzen dituelako, euskara ez ikasteko eta ez ezagutzeko arrazoiak objektibatu (zilegitu) egiten ditu, gaztelaniaren erabilera logikoa, ohikoa eta normala den praktika gisa aurkeztuz.

Iturri ofizialetatik euskararen erabileraren inguruan igortzen den diskurtsoa gogora ekartzen badugu, begi bistakoa da bata eta bestearen arteko aldea. Iturri ofizialetatik euskara bizirik dagoen eta bizia den hizkuntza dela gogorarazi eta euskararen erabileraren eta normaltasunaren alde egiteko animatzen zaigun bitartean, iturri informaletatik hizkuntza gisa baino erreferente sinboliko eta identitario lez irudikatzen da euskara, eta maila horretan zaindu, maitatu eta gorde dezagun iradokitzen zaigu, gaztelaniaren erabileraren mesedetan.

4.2.2. Munduko hizkuntzarik zailena

Euskararen erabilera sustatzen dutenek badakite hizkuntza erabiltzera animatzea bezain garrantzitsua dela hizkuntzaren gaineko ezagutza bultzatzea: euskara erabili ahal izateko jakin egin behar baita lehenengo. Premisa horri eutsiz, Euskal Herriko hainbat erakunde publiko zein

pribatuk esfortzu handia egin du euskarazko alfabetatzearen alde, eta bai haur zein helduen artean, euskara ikasteko baliabideak nabarmenki ugaritzen joan dira azken mende erdian⁸.

Ahalegin horren emaitzak ere agerikoak dira: D ereduko matrikulazioak gora egiten dihardute eta gaur egungo gazteen portzentaje handi batek euskara ulertu eta mintzatzeko gaitasuna du⁹. Helduen alfabetatzea, ordea, malkartsuagoa izan da eta azken urteetako matrikulazioei erreparatzen bazaie, hainbat gora-behera egon direla ikus liteke. Aldaketa horien arrazoiak anitzak badira ere, egia da motibazioak eta gogoak zer esanik badutela eta bultzada bat edo beste ez datorrela gaizki tarteka.

Helduaroan hizkuntza bat ikastea haurtzaroan ikastea baino konplexuagoa dela onartuz, eta egindako esfortzu hori aitortu eta balioan jartzeko asmoz, Iñigo Urkullu lehendakariak 2015ean aipatutako hitzak ekarri nahi ditugu gogora:

Euskaldun berriek argiro erakutsi dute euskara ikastea posible dela, gogorik baldin bada, aukerarik baldin bada eta egingarria den ahalegin bat egiten bada. (Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz, 2015-12-3)

Batetik, euskaldun berrien esfortzua azpimarratzen du lehendakariak, horien “gogo” eta “ahaleginari” erreferentzia eginez. Baina horrekin batera, bestetik, euskara ikasteak zailtasunik baduela onartzen du, “posible” den zer edo zer dela aipatuz. Baina zer dela eta zehazten du lehendakariak euskara ikastea egingarria den afera dela? Hain zuzen ere, alderantzizkoa dioen diskurtso sozialari erantzuten ari diolako: hau da, euskara ikastea ezinezkoa dela defendatzen duen diskurtsoa hartzen du oinarri eta horren gainean eraikitzen du bere esaldia (“euskara ikastea posible dela”) eta mezua. “Euskara ikasteak esfortzua dakar, bai, baina lor daiteke, eta hori euskaldun berriek erakutsi dute”. Horra lehendakariaren mezuaren laburpena. Baina euskara ikasteko ahalegina egin behar dela adierazteak ez du esan nahi euskara ikastea beste edozein hizkuntza ikastea baino zailagoa izan behar duenik. Hain zuzen ere, hitz hauen testuingurua kontuan hartzen badugu, uler daiteke mezu honek gehiago duela jendea euskara ikastera animatzeko desiratik, euskararen zailtasunak bistaratu eta horrekin inor izutu nahi izatetik baino.

Beti ez da horrela izaten, ordea. Zenbait kasutan, euskara ikastearen zailtasuna azpimarratzen denean ez zaio horren atzean dagoen ahaleginari balioa eman nahi izaten, edota esfortzua izanik ere egingarria dela adierazteko mezurik topatzen. Horren ordez, zailtasuna bera bihurtzen da diskurtsoaren muin, eta horrekin lotzen dira euskara aspergarria, alperrekoa edo zaila izatearen ideiak.

“nik ulertzen ditut euskaldun zaharrak, alukeria da bizitza guztian euskaraz egin eta gero EGA ateratzeko batua ikasi beharra (...) dioxosozko euskara, hitz egiten bai, baina gramatika...” (15)

“es muy complicado, es que yo hablo un euskera más de la calle” (16)

⁸ Horien artean aipagarri, besteak beste, ikastolak (1960tik aurrera bereziki), EAKren sorrera (1980) edota HABErena (1983).

⁹ 2016ean 16-24 urte artekoen %55,6ak, VI.Inkesta Soziolinguistikoaren arabera

Euskararen zailtasunaren inguruko diskurtsoak oso presente daude ETBk egiten duen umorean. Diskurtso hori modu transbertsanean agertu ohi da normalean. Hau da, ez du haustura egiteko balio, baina testuingurua osatzen eta atontzen laguntzen du eta bromaren baitan zentraltasunik hartzen ez badu ere, pisu handiko diskurtso bilakatzen da behin eta berriz errepikatzen zaigun mezua den heinean.

Adibide hauetan ikus daiteke nola euskararen zailtasunari erreparatzen zaion, ikasten, hitz egiten edo ulertzen zaila den hizkuntza dela adieraziaz. Hizkuntzaren konplexutasunari egiten zaion erreferentzia hori, beraz, debaldekoa da; edo nahiago bada, ez du beste mezurik laguntzen eta hizkuntzaren gaiztasuna goraiatzea baino ez du bilatzen. Horretarako, adibideetan ikus daiteken moduan, argudio gisa erabili ohi da “gramatika” edo “arau” nahasiak dituelako ideia; hain zailak, ezen, euskaraz dakien batek ere (euskaldun zaharrak) lanak izaten dituen EGA ateratzen.

Iturri formaletik helarazitako diskurtsoarekin alderatzen badugu, aipa liteke “ahaleginaren” ideia eta “zailtasunarena” hurbil badaude ere ez direla gauza bera, eta diskurtso mailan ere ez diotela berdina. Esparru ofizialetik igortzen diren mezuek hizkuntza (bat) ikasteak dakarren esfortzua aintzat hartzen dute eta aitorten horretatik euskara ikastera animatu nahi dute biztanleria. Informaletik igorritakoek, ordea, zailtasunaren mezu horretan egonkortzen dira, euskararen berezko ezaugarri bihurtuz zaila izatearena eta horrekiko alternatiba edo irakurketa zabalagorik ez dute ematen.

4.2.3. Euskara ez erabiltzeko eskubidea

Zailtasunaren diskurtso honek beste batzuen enbor gisa funtzionatuko du, gainera. Horien artean daude, besteak beste, euskara gaizki erabiltzea zilegi izatearen diskurtsoa edota euskara eta gaztelania nahasian erabiltzea (“euskañola”) onargarria izatearena. Bi horiek aurrerago jorratuko baditugu ere, garrantzitsua da antzematea umore bidez igortzen zaizkigun mezu hauek bete-betean nola erantzuten dioten orokorragoa den beste bati: euskara ez erabiltzeko eskubideari, hain zuzen ere.

Euskara “zaila” izatea aski argudio da hizkuntza ez ikasi, ulertu edo erabiltzeko eta horrek, halaber, gaztelaniaren erabileraren aldeko diskurtsoak zurkaizten ditu. Euskara ez erabiltzeko “arrazoi objektibo” gisa aurkezten zaigu zailtasunarena eta justifikatua (eta babestua) geratzen da berau ez erabiltzea. Hau da, euskara erabiltzen ez bada ez da gogo edo nahi faltagatik, lortezina izateagatik baizik. Edo hala adierazten dute behintzat esketxetako pertsonaiek.

Idea hau zaila da zuzeneko aipu edo adibideetan aurkitzen, aurretik aipatu bezala zeharka edo esaldi edo keinu laburretan (haustura ez direnetan) azaltzen baita esketxetan. Nolanahi ere ETBko umore saioen lagin esanguratsu bat hartzea aski da mezuaren presentziaz eta errepikakortasunaz jabetzeko.

Atentzioak ematen du, halaber, euskara ez erabiltzearen eskubide honek iturri formaletatik igortzen den beste mezu batekin talka nola egiten duen ikusteak.

“el objetivo de futuro es la conformación de una sociedad bilingüe formada por ciudadanos bilingües, y por eso les reconoce

absolutamente a todos los ciudadanos de la CAV el derecho a conocer y a utilizar el euskera” (Patxi Baztarrikaren bloga: Aumenta la matriculación en los euskaltegis.)

Hauek dira 2016an Patxi Baztarrikak, garaian Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, bere blogean idatzitako adierazpenak. Argi azaltzen du bertan hizkuntza politiken norabide eta xedea zein izan beharko lukeen: euskal gizartea (EAEkoa) elebiduna izatea, hala nahi duenak euskara erabiltzeko eskubidea izan dezan. Izan ere, euskaraz aritu nahi duenak euskara ulertuko duen solaskidea behar du ezinbestean, bestela euskalduna gaztelaniaz mintzatzera behartua egongo litzateke eta. Euskara nahi beste erabiltzearen eskubidea, beraz, gizarte osoak euskara ulertzeko gai izateak bermatuko luke, eta erronka hori termino demokratikoetara edo askatasun terminoetara hurbiltzen du Baztarrikak; EAEn nahi duenak nahi duen hizkuntza ofizialean aritzeko eskubidea izan beharko lukeela aldarrikatuz.

Baina, antzeman daitekeen moduan, hizkuntza eskubideen inguruko irakurketa guztiz desberdina da umore esketxetako adibideetan. Kasu horietan euskara ez ikastea (edo duen zailtasuna medio “ezin” ikastea) eta ondorioz ez (edo “ezin”) erabiltzea baita zeharka aldarrikatzen den “eskubidea”.

4.2.4. Euskaraz, edo

Diskurtsoen arteko desberdintasun horiek ere antzeman daitezke eskubideen gaiaren inguruko beste prisma batzuetan. Iturri ofizialeetatik helarazten den “euskara erabiltzeko eskubidea” ez da hasiera batean irudi dezakeen bezain mezu zurruna, “euskara jakitearen” baitan tipologia desberdinak egon badaudela gogorarazten diguten diskurtsoak izanik horren testigu:

“Hay diversos niveles de aprendizaje. Todos merecen la pena, todos son de gran valía. Nuestro objetivo pasa por seguir vaciando el saco del monolingüismo. Y para ello todos los esfuerzos son válidos, también los de los euskaldunes pasivos. El objetivo de muchos adultos podría ser, por qué no, llegar a entender el euskera. El de otros muchos podría ser entenderlo y además hablarlo hasta cierto punto. El de otros, lograr un nivel alto. Todos son necesarios. La cuestión no es que todos logren el EGA —eso no sucede con ninguna lengua—. No tenemos para vender a quienes poseen el EGA, y mucho menos para minusvalorarlos. (...) Necesitamos hablantes, los necesita el euskera: los que tienen un nivel básico, los que poseen un nivel avanzado y los que no lo tienen tanto, los que lo hablan con fluidez y los que lo entienden y se ponen a hablarlo un poco. Hacen falta hablantes de todos los niveles. Y, para lograrlo, la oferta de los euskaltegis es amplia” (Patxi Baztarrikaren bloga: Aumenta la matriculación en los euskaltegis.)

Euskaraz aritu eta bizitzeko aukera egon dadin euskara bikaintasunez jakin beharrik ez dagoela diosku testuak. Norberak dituen gaitasun eta mugetara moldagarriak diren ezagutza maila desberdinak daudela ematen du aditzera, eta apalenetik gorenenera, guztiak

“baliotsuak” eta “beharrezkoak” direla azpimarratzen du: euskaraz ulertzen duena, ulertu eta zerbait hitz egiteko gai dena, egunerokoan euskaraz jarduten duena edota EGA ziurtagiria lortu duena. Horrela, euskara jakiteko eskaeraren atzean “hiper zuzena” den euskara mailari erreferentziarik egiten ez zaiola aditzera ematen du aipuak. Bestela esanda, euskara jakiteko maila desberdinak daudela eta desberdintasun horren bidez bakoitzak bere “leku linguistikoa” bila dezakeela azaltzen du. Honekin uler liteke, hala, mezu honen diskurtsoak euskaldun berriak ukitzea bilatzen duela (are gehiago testua gaztelaniaz idatzia dagoela kontuan hartzen bada) eta horiek euskara ikastera animatzeko deia egiten duela honen bidez.

Antzeko diskurtsoa baina ñabardura oso desberdinekin aurki dezakegu eremu informaleko iturrietan. ETBk igortzen dituen esketxetan, euskararen erabilera maila desberdinei ere tartea ematen zaie (normalki maila baxuenei) eta horien erabilera baliogarria bezain zilegi delako ustea elikatzen da. Horren adibide bat aurkezten da jarraian, *euskañolaren* erabilera sustatzearen aldeko esketxean:

"Hay un idioma que está revolucionando la calle:

-¿Qué tal Antxon? Zer moduz?

-Super ondo nago ¿y tú?

-Bastante ondo

-Me alegro ¡Hasta gero!

-¡Luego gero!

Nuestra academia de “euskañol” le ofrece la posibilidad de ponerse al día en las nuevas tendencias idiomáticas. Nuestros métodos son muy sencillos ¡Etorri pa’ca! No lo dude, el “euskañol” es una apuesta segura para el futuro. Algunos de nuestros antiguos alumnos se lo pueden confirmar ¡Euskañol, molatzen mazo!” (17)

Euskañola (edo gaztelania eta euskara modu nahasian erabiltzea) euskara osoki eta zuzen ikastearen alternatiba moduan aurkezten da esketxean zehar. Batetik, iraultzailea izaten ari den hizkera berria horixe bera dela aditzera ematen zaigu (“*nuevas tendencias idiomáticas*”) eta horrekin batera jendartean duen arrakastari keinu egiten dio (“*revolucionando la calle*”). Horren aldeko apustuan etorkizunera ere luzatzen du begirada eta, gaur ez ezik bihar ere baliogarria izango dela azpimarra egiten du: “*una apuesta segura para el futuro*”.

Kontuan izan behar da *euskañola* giro informalera mugatzen dela arrunki, eta maiz kritikatu eta gutxietsia izan dela euskararen erabilera baldarra egitea dakarrelako. Kasu honetan, ordea, prestigioa egotzen zaio eta akademikotasuna proposatzen, “zuzetasun” eta “ofizialtasun” posible baterantz hurbilduz. Hor datza, hain zuzen ere, bromaren hausturak; *euskañolari* ohikoa ez den irakurketa prestigiotsua eman izanean.

Baina *euskañolak* normalki ez duen seriotasun eta zorrotzasuna emateaz batera (eta gure arreta horretan zentratzen dugun bitartean) *euskañolaren* nolabaiteko hurbilpen bat ere egiten zaigu. Hau da, txantxa bitartekari dela, *euskañola* nolabait ere balioan jartzen du

esketxak, errealtate hori egon badagoela erakutsiaz batetik, eta hizkera hori baliatua eta baliogarria dela azalduz bestetik.

Vaya Semanitako adibidearen mezua Patxi Baztarrikak darabilen diskurtsoarekin alderatzen badugu, beraz, elkarren arteko hurbiltasun eta urruntasunak badaudela antzeman daiteke. Batetik, ikus daiteke kasu honetan euskararen erabilera xume bati erreferentzia egiten zaiola; asko jakin gabe ere euskaraz aritu gaitzkeela adierazten baitu esketxak, beti ere gaztelaniaren makulua ondoan izanik. Hala, euskaraz aritzeko darabilgun hizkuntza mailak ez duela zertan bikaina izan behar erakusten zaigu, hitz gutxi batzuk erabiltzearekin molda gaitzkeela esanaz. Antzeko zerbait aipatzen zigun Baztarrika jaunak ere, euskara erabili edo hurkoari norberarekin erabiltzen uzteko muturreko zuzentasunez ez dela zertan ikasi behar dioenean. Baina Baztarrikaren diskurtsoak maila baxuko euskaraz mintzo denean nekez irudikatzen du halakorik; euskaraz ezer ez ulertzea, erdal esaldietan euskarazko hitz solteak erabiltzea eta erabiltzen diren hitzak gaizki erabiliak izatea gizarte elebidun bat lortzeko bidetik urrun geratzen dela argi baitago.

Bestetik, akademia batean sartzearen inguruko mezua darabilte biek, euskara ikasteko akademien lana ageriko eginez. Baina Baztarrikaren kasuan euskara bereganatu eta horretan formatzeko euskaltegien eskaintza zabala aipatzen duen bitartean; ETB1eko bromak *euskañola* irakasteaz arduratzen den zentroan darabilten metodologiaren sinpletasuna azpimarratzen du ("*Nuestros métodos son muy sencillos*"), beste behin ere, euskara ikastearen zailtasunari keinu sotil bat eginez.

Antzeko diskurtsoaren bueltan dabil hurrengo adibidea ere. Kasu honetan euskara jakitearen itxurakeria egiteko euskara nola erabili azaltzen da:

"Expresiones que deberás conocer para parecer que dominas el euskera a la perfección. "Oso polita". Sirve para un roto y un descosido: tengas un bolso, hayas sido madre de un bebe, o tu cuñada te haya regalado un cachorro de cocker. Y también nos sirve si vamos a parque Yellowstone, porque si vemos al oso Yogui también podemos decir "Oso polita!". El segundo consejo para que parezcas euskaldun es, cuando te digan "egunon" o "gabon", que todos sabemos lo que quiere decir, contestad un "baita zuri ere". Rápido, como un latigazo. Y lo más importante para parecer que sabes euskera sin tener ni idea, es repetir la última palabra que dice tu interlocutor añadiéndole un "bai". Hagamos una prueba:

-Gabon Oscar, astebururako eguraldi txarra

-Txarra, bai, txarra, bai... Baita zuri ere!

-Oso polita!" (18)

Kasu honetan ere euskarazko hitz gutxi batzuk ikasi eta horiek erabiltzeaz dihardu aipua. Baina *euskañolarekin* gertatzen ez den moduan, hemen ez zaigu hitz horiek gaztelaniarekin tartekatze iradokitzen, horren ordez, hitz gutxi horiekin elkarrizketak mantentzeko aukera eskaintzen zaigu. Uler liteke kasu honetan ere euskara erabiltzera

“animatzen” duela bromak, eta horretarako euskarari egozten zaion gehiegizko zailtasunaren inguruan ironizatzen eta hiperbolizatzen duela esketxak. Hau da, euskara ikasteko ahaleginik ez dela zertan egin behar agertzen du, hiru hitz xume jakitearekin aski baita elkar komunikatzeko.

Adibide honetan ere, *eskañolarenean* bezala eta Baztarrikaren diskurtsoarekin bat etorriaz, euskara maila apalean erabiltzea baliogarria dela agerian jartzen da. Baina argi dago mezu honek ez duela bi diskurtsoetan (Baztarrikarenean eta umorez igorritakoetan) ikuspegi bera bultzatzen. Iturri ofizialeko diskurtsoetan euskara maila apalenak ere garrantzia eta balioa duela esaten denean, pentsa liteke maila apala izanik ere euskara ulertu eta erabiltzeko ahalegina egiten duten horiez ari dela, eta ez hainbeste umore esketxetan agertzen den erabilera anekdotikoaz eta horrek berekin dakarren jarrera konformista eta asebetetz.

Aurretik landutako beste ideia bat ere antzeman daiteke diskurtso honetan: euskarari ikuspegi sinboliko bat egoztearena, hain zuzen ere. Euskara ez da hitz egin eta menperatu beharreko hizkuntza bizi bat, baizik eta zeinu identitario soil bat, simulatu (eta disimulatu) daitekeena. Hala, hizkuntza ezagutzea edota behar bezala hitz egitea ez da ezinbestekoa, aski da esaldi eta hitz gutxi batzuk ezagutzearekin, euskararen egitekoa ez baita eguneroko bizitzarako baliogarria den hizkuntza bat izatea, agurtzeko eta baiesteko erabiltzen den hizkuntza deskriptibo eta anekdotikoa izatea baizik.

Aipatzen gatozen euskararen erabilera urri hori *zeharka* ere azaldu ohi da umore esketxetan. Hots, haustura izatera iritsi gabe.

“Kaiso, ni Aitxol, gara, gintxen ¡Qué difícil! Nada, aquí sigo de empalmada con el Ibilaldi. ¡A tope! Voy a empalmar con Araba oinez, Kilometroa, Nafarroa bai... Ya he aprendido varias cosas, mira eh: bos caña, saspi kalimotxo, hiru txirrisklas, bat... [botaka egiten du] ¡Ala! Ahí se ha ido todo el euskera que sabía. (19)

Esketx honetan Ibilaldian dagoen gizonezko baten irudia agertzen zaigu, hausturak euskararen aldeko festen funtzioa eta egitekoa kolokan jartzea oinarri duelarik: halako ekitaldietara hurbiltzen direnen helburu nagusia euskara babestu edo sustatzeko nahia baino parranda egitea dela iradokiz. Hain zuzen ere “*Araba oinez, Kilometroa, Nafarroa bai*” diosku pertsonaiak, Araba euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa oinez esan beharrean, non dagoen ere ez dakiela agerian utziz.

Haustura horren atzean, ordea, euskararen erabilera baldar eta akasdun bat agertzen da eszenan, broma bera “girotzeko” baliogarria suertatzen dena. Izan ere Ibilaldiko gora-beherez hitz egiten duen bitartean euskaraz aritzeko zailtasunak agertzen ditu pertsonaiak (“*gara, gintxen*”) bere euskararen ezagutza eta erabilera baldarra ekosistemaren parte bihurtuaz. Hala, bromaren arreta hizkuntzaren erabilera ez den beste elementu bat izanik (zehazki, euskararen aldeko ekitaldien eraginkortasuna, funtzioa edota balioa), euskara ez jakitea eta euskaraz gaizki jakitea zilegi jotzen da. Testuinguruarekin bat dator, beraz, hori osatu eta betetzeko baliogarria den beste apaingarri bat baita.

Esketx hauen bidez, hala, euskararen erabilera folklorizatu bat iradokitzen da, erabilera hori normaltzea eta zilegitzea lortzen duena. Agerikoa da esketxetan euskara gaizki edo oso era

mugatuan darabiltela pertsonaiek eta ziurrenik testuinguru formal batean oso deigarria egingo litzaike zerbait litzateke. Baina kontuan hartu behar da hemen agertzen zaizkigunak umore diskurtsoak direla, eta beraz, grazia sortzen duten unetik horien hautemate eta asimilazioa desberdina dela. Esketxen bidez, euskaraz xume eta oker hitz egitea erreferentzia edo aukera gisa aurkezten zaigu pixkanaka (batez ere broma horiek etengabe igortzen direla kontuan hartzen badugu), eta hasieran izan zezakeen arrotasun, anomalia edo arrarotasuna galdu ahala, onarpen eta zilegitasun sozialean irabazten dute progresiboki.

4.2.5. Aitorren hizkuntza zaharra

Iturri ofizialetatik igorritako mezuek sarritan jartzen dituzten balioan bai euskara zein euskarari atxikiak dauden errealitate desberdinak. Diglosi egoeran dagoen hizkuntza izanik, euskararen alde on eta positiboak gizartean zabaltzeak funtzio garrantzitsua betetzen du; ez bakarri hizkuntzaren inguruko informazioa helarazi eta errealitate horren berri gizaritari emateagatik, baizik eta baita mezu horien bidez gizartea hizkuntzara hurbiltzeko modua delako.

Mezu horietako hainbatek euskarak gaur egun betetzen duen lekuaz dihardute, begirada atzera bota eta azken hamarkadetako bilakaera historikoarekin alderaketa eginez.

“Harrez gero, gauzak errotik aldatzen ari gara. Duela hogeita hamar urte, bost herritarretik bat bakarra zen elebiduna. Gaur egun hirutik bat da elebiduna. Duela hogeita hamar urte belaunaldi zaharrenak ziren euskaldunenak. Gaur belaunaldi gazteenak dira euskaldunenak. Gaur zenbat eta gazteago, orduan eta euskaldunagoa da gure gizartea. Duela hogeita hamar urte lekurik ez zuen esparru askotara hedatu da euskara: eskola, unibertsitatea, hedabideak, lan mundua, zientzia, teknologia... Komunikazio garaikidearen sarean sendo eta indartsu hedatzen ari da: Interneten, munduko 44garren hizkuntza da euskara. Datorren urtean “puntu eus” ekimenari esker beste jauzi bat egingo du euskarak. Horra “Aitorren hizkuntza zaharra” Europako hizkuntza modernoaren artean.” (Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz, 2013-12-3)

Euskararen ikuspegi progresista balioan jartzen duen diskurtsoa da honakoa. Argi azaltzen zaigu euskara indartsu hedatzen doala gizartean eta zenbait urte lehenago pentsaezinak ziren esparruetan bere lekua bilatzera iritsi dela. Halaber, kontu handiz aukeratzen dira euskarari lotzen zaizkion bestelako kontzeptuak eta berritasun edo aurrerapenari dagozkion nagusienak zuzenean aipatzen ditu mezuek: “gazteak”, “zientzia”, “teknologia”, “komunikazio garaikideak”, “internet” eta “moderno”.

Euskarari egotzi izan zaion irudikari landatar, atzerakoi, baliogabe eta zaharkituari zuzenean erantzuten dio aipuak. Zalantzarik balego ere, euskara ez da Frankismoak hauspotu zuen (eta gerora ere elikatzen joan den) hizkuntza basa hori; horren ordean, gaur egungo mundu teknologizatu, akademizatu, azkar eta aurreratura guztiz egokituta dagoen eta horretan aritzeko guztiz baliagarria den hizkuntza gisa agertzen zaigu.

Iturri ez formaletatik helarazten den mezua, ordea, oso bestelakoa izaten da, umore esketxek arkaikoa eta zaharkitua den hizkuntza gisa aurkezten baitute euskara. Horren erakusle da ETB2k igorritako zenbait esketx segida. Guztietan antzekoa da testuingurua: kobazulo baten ahoan cromagnonak diruditen gizaki-tximinu familia bat ageri da. Elkarren artean komunikatzeko ez dute hizkuntza erabiltzen oraindik, soinu eta keinuak erabiltzen baitituzte horretarako. Halako batean, ordea, haien lehen hitzak esango dituzte, euskarazko hitzak izanik hori (20). Bromaren muina mantendu egingo da esketxetik esketxera eta aldatuko den bakarra euskarazko lehen hitz hori izango da. Diskurtso bera indartzen da, esaterako, euskara Bibliako kondairekin lotua agertzen denean (21) edota haren sorrera Sabino Aranari egotzen zaionean (22). Oro har, euskararen gaineko ikuspegiak iraganarekin lotu ohi dira, tradizioarekin, aspaldiko kontuekin edota hizkuntzaren antzinako jatorriarekin (*“una de las lenguas más antiguas de Europa”*, 23; *“leguna milenaria”* 24). Hala, garaikideagoak izan daitezkeen bestelako erreferentziekin ez da inolako harremanik egiten, edo egin den azterketan behintzat ez da halakorik aurkitu. Izan ere, nabarmena izan da errebisatu diren esketx guztien artean bakar batek ere ez duela erakutsi euskara eta gaur egungo erreferentzia ezagun eta erakargarri baten arteko loturarik. Edo ez behintzat berariaz (haustura gisa), agertzekotan bromarekin loturarik ez duen egoera baten baitan izan baita.

Esketxetan ematen zaion urrutiko erreferentzialtasun honek zer ikusi gutxi du esparru formaletik euskarari egotzen zaion modernotasun eta gaztetasunarekin. Batean, puntako hizkuntza baliagarri eta gaurkotuztat erakusten zaigun bitartean, oinarrizko eta arkaikoa den testuinguru batekin lotuko digu besteak; euskararen erabilerak Internetaren aroan jaio direnekin baino, leizeetako edo bibliako pertsonaiekin zer ikusi gehiago duela iradokiz.

4.2.6. *Euskal satelitea*

Gizarteratzen diren euskararen inguruko mezu baikor horiek helarazteko beste modu bat hizkuntzaren hedapenari buruzko datuak ikusaraztean datza. Euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruko nondik norakoen berri ematen duten zifra eta datu taulek euskararen erabileraren zentsu bat izatetik urruti, pilula indar-berriztatzaile eta motibagarri gisa funtzionatzen dute.

“Erabilera ere handitu egin da; EAEn gero eta gehiago dira euskara erabiltzen duten pertsonak. Biztanleen % 20k euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen du, eta beste % 8,9k ere erabiltzen du euskara, nahiz eta gaztelania baino gutxiago. Gazteen artean eta eremu formaletan (zerbitzu publikoetan) igo da batez ere eta oso nabarmen erabilera.” (Euskararen agenda estrategikoa 2013-2016, Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Legebiltzarreko agerraldia, 2014-10-14)

Aurreko adibidean bezala, halako mezuak helarazten direnean “nondik gatozen” gogoratzea maiz erabiltzen den errekurtoa dela ikus liteke, egungo egoera perspektiba zintzoagoz baloratua izan dadin edo. Kasu honetan mezuaren diskurtsoa euskararen erabileraren, eta oro har gizartean duen presentziaren, hazkundeari zor zaio. Euskara gizarte

esparruak (“zerbitzu publikoak”) eta gizarte kolektiboak (“gazteak”) bereganatuz doala aipatzen da horretarako, eta neurri batean, haren presentzia gero eta hedatuagoa eta ezagunagoa dela agerian jartzen zaigu.

Esparru informaletik igortzen den diskurtsoa, aldiz, oso bestelakoa da. Vaya Semanitako (2014) esketxetako batean, adibidez, euskaraz hitz egiten ez dakien bankuko funtzionario bat azaltzen da honakoa esanaz: “*es que estoy apuntado en el Euskaltegi, pero solo sé lo básico*” (25). Bankua lapurtu nahian pistola eskuan daramala, euskaraz mehatxuka eta diru eskean dabilen lapurrari diotsu. Lapurrak euskaraz dakien norbait ekar diezaioten eskean dabil, baina langiletariko eta bezeroetariko inork ez daki euskaraz, eta azkenean atxilotua eramaten dute lapurreta erdibidean utzi eta euskaraz dakien inor topatu ez duelako etsituta.

Haustura, kasu honetan, lapurrak euskaraz lapurtzeko duen eskubidearen aldarrikapen jarraian oinarritzen da: euskaraz kasu egingo dion inor behin eta berriz eskatzearen saturazioak eta horren aurrean jasotzen duen etengabeko ezezkoak, egoera parodiko bihurtzea du. Broma honetan, beraz, aurretik aipatu dugun diskurtso bat errepikatzen zaigu: euskara ez jakitearen normaltasuna, hain zuzen ere.

Baina kasu honetan alderantzizkoa da planteamendua, hots, ez da gaztelaniaren alde egiten, baizik eta bistaratzen dena euskara jakitearen anomalia da. Lapurrak ez ezik beste inortxok ere ez du euskaraz hitz egiten, eta euskaraz hitz egiteko bere aldarrikapena (eskubidea) zentzugabekotzat geratzen da horrela.

Esketxak, neurri batean beraz, ulertzerak darama euskaldunak isolatuak daudela gizartean. Gutxiengo arrotz gisa irudikatzen dira egonkortutako ingurune erdaldun batean eta zalantzan jartzen da hizkuntzak berak baliorik izan dezakeenik ere. Izan ere, egunerokoak diren praktiketan (banku batera joaterakoan) euskaraz aritzeak ez du arrakastarik, alderantziz, ezezaguna edota exotikoa den zerbait bailitzan aurkezten zaigu, eta “denok gaztelaniaz ondo jakinik euskaraz hitz egiten tematzen diren horien” arrarotasuna azpimarratzen zaigu.

Kasu honetan ere bistakoa da bi diskurtsoen arteko aldea. Inguru formaletik gizartean euskararen presentziaren zabaltzearen berri ematen zaigu, pixkanaka baina geldiuenerik gabe hedatuz doan errealitate emankor gisa. Aldiz, esparru informalean botila erdi hutsik ikusten da eta alderantzizkoa da igortzen zaigun mezua; euskara ezagutu edo erabiltzen dutenak nabarmenki gutxiengoak direla azpimarratzeaz batera, euskalduna bere etxean arrotz irudikatzen baita.

4.2.7. Euskara hesi

Euskarari eransten zaion beste diskurtsoetariko bat bizikidetzaren alde diharduena da. Hizkuntza tarteko, gizartean egon litezkeen norgehiagoka edo gatazkak leuntzeko, elkar ulertzea bultzatzeko eta zubiak eraikitzeke ezinbesteko erreminta gisa aurkezten zaigu euskara. Neurri batean diskurtso honek badu loturarik euskara ikastea eskubidetzat erakusten duen horrekin, biak ikuspegi demokratikoari lotzen baitzaizkio, horren baitan eskubide parekidetasuna, askatasuna, elkar bizitza edota errespetua bezalako kontzeptuen bueltan mugituaz.

“Gobernu berria eratu genuenean, hizkuntza-bizikidetzak kokatu genuen gobernu-ekintzaren ardatzen artean. Zergatik hizkuntza-bizikidetzak? Herri honek behin eta berriz erakutsi digulako gizarte elebiduna izan nahi duela. Hizkuntza-bizikidetzak gizarte-bizikidetzaren zati banaezina dela. Euskarak eta, beraz, elebitasunak, libreago egiten gaitu.” (Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz, 2013-12-3)

“Horregatik dira euskara eta hizkuntza-bizikidetzak lehentasunezko esparru Jaurlaritzaren gobernu-ekintza. Euskara elkarbizitzarako oinarri eta euskaldunon arteko zubi dugulako.” (Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz, 2013-12-3)

Iñigo Urkulluren hitz hauek euskara bizikidetzarako oinarrizko elementu gisa agertzen dute. “Elebiduna izan nahi” duen gizartean elkar bizitzaren alde egingo bada “hizkuntza-bizikidetzatik” hasi beharko dela agerian utziz. Hala, euskarak elkar ulertzen laguntzen gaituela helarazten zaigu modu zabalean: ez komunikatzeko baliabide tekniko bat den aldetik bakarrik, baizik eta baita elkarrekiko errespetuzko eta berdintasunezko harremanak sortzeko balio duen heinean ere.

Baina, kasu honetan euskararen inguruan umoretik igortzen zaigun diskurtsoa oso bestelakoa da, euskara gatazka edo elkar ez ulertzearen zio gisa irudikatzen baita askotan.

ETB1-ek igorritako esketx batean, esaterako, euskaldun berri batek bere bikotearekin euskara nola praktikatzeko duen ageri zaigu. Gizonezkoa euskaldun zaharra da eta emakumea hizkuntza ikasten hasi berria. Azken hau oso motibatua ageri da bere euskara klaseekin eta mutil lagunari hizkuntza praktikatzeko lagun diezaion eskatzen dio. Mutilak pozik hartzen du eskaria hasieran eta elkarrizketa errazak mantentzen saiatzen da harekin. Denbora gutxira, ordea, neskek dituen zailtasunekin nekatzen eta desesperatzen hasten da: *“Nekagarria da euskaraz ikasten ari den batekin ibiltzea!”*. Euskara haien eztabaiden ardatz bihurtzen da pixkanaka eta mutila damu ageri da neska euskara ikasten hasi izanagatik: *“Euskara gure harremana izorratzen ari da”* (26).

Kasu honetan esplizituki adierazten zaigu hizkuntza harremanaren ezegonkortzearen arrazoi nagusia dela. Euskarak ez baitu bikotea gehiago elkartzeko balio izan ez eta, Urulluren diskurtsoan ageri bezala, elkarren arteko zubi berriak eraikitzeeko balio ere. Horren ordean, elkarren arteko arazoak hizkuntzak sortu dituela iradokitzen zaigu.

Antzeko ideiak heltzen dio jarraian azalduko dugun beste adibide honek ere. ETB2 igorritako beste esketx honetan, aireportu bateko kontrolatzaile bat ageri da hegazkin bateko pilotuarekin hizketan. Hegazkina larri dabil, arazoaren bat du eta kontrolatzaileari laguntza eske hasten da. Kontrolatzaileak dakien euskara apurra praktikan jartzeko aukera egokitzen jotzen du hori, eta euskara motelean hegazkin pilotuari oharrak emanez hasten da: esaldiak guztiz ongi amaitu gabe eta esan nahi duen hori erdizka adieraziz:

“- [Hegazkineko pilotua] Aquí vuelo VS705 tenemos una emergencia

-[Kontrolatzailea] *Bai, bai, zer moduz? Esan ahal zeniguzuke... No, así no era...Esan zer gertatzen da.*

-*Dejese de euskera, estamos perdiendo combustible y necesitamos pista para aterrizar cuanto antes.*

-*Bai, bai, lasai...mesedez...lur hartu pista...*

-*¡Dese prisa joder!*

(Beste kontrolatzaile batek laguntzen dio euskaldun berriari)

-*Dile que aterrice en la numero 8 que la tenemos ahí muerta de risa.*

-*Mesedez, zuk lur hartu pista... vaya, siempre me lio con los números...*

(...)

- [Hegazkineko pilotua] *¡Olvídense del euskera, si no hacemos algo rápido morirán más de cien personas!*

-[Kontrolatzailea] *Bueno y que son cien personas comparado con preservar una cultura milenaria eh!*

(Hegazkinak istripua du azkenean. Pilotua zauritua ageri da lurrean eta ondotik txapela eta koadrodun atorra daraman gizonetako bat pasatzen zaio. Hau dio zaurituak:)

- [Hegazkineko pilotua] *Lagundu mesedez! Deitu iezaiozu sendagile bati! Zerbait hautsi dudala uste dut.*

- [Txapela dun gizona] *¡Qué! ¿Pidiendo ayuda en euskera batua? ¡Pues me pides en vizcaíno o te va a ayudar tu puta madre!*" (27)

Esketx honetan aurrez aipaturiko ideia berbera errepikatzen zaigu: euskara ikasten ari direnak edo euskara ikasteko saiakera egiten dutenak komunikazioa (eta harremanak oro har) zaildu egiten dituzte eta gogaikarriak suertatzen dira. Aspergarriak zer dela eta diren erakusteko, gainera, bi arrazoi eman ohi dizkigute esketxetan. Batetik, euskara maila oso baxua erakusten dute: erritmo motela darabilte, aditzekin nahastu egiten dira, hitzak topatu ezinean dabilta... Bestetik, oso burugogorak izan ohi dira, eta kosta hala kosta euskara erabiliko dute. Alperrik esango zaie gaztelaniaz aritzeko ("*Dejese de euskera*", "*¡Olvídense del euskera!*"), ez baitute kasurik egingo euskaraz erantzuten tematuak egongo baitira. Horrek are eta amorragarriagoak bilakatzen ditu, batez ere, azken adibide honetan bezala, hil ala biziko egoera bat aurkezten zaigunean eta hizkuntza beste edozeren gainetik jartzen dutenean ("*que son cien personas comparado con preservar una cultura milenaria*").

Euskaldun berriak gogaikarritzat agertzeaz gainera, esketx honek beste diskurtsorik ere helarazten du: hizkuntza gatazka motibo gisa agertzen du. Adibide honetan birritan ikus daiteke ariketa hori: batetik, kontrolatzailea euskaraz ari eta pilotuarekin elkar ulertzera iristen ez denean; eta bigarrena, pilotua zauriturik laguntza eskean ari eta txapela duen gizonak

kasurik egiten ez dioenean. Bi momentu horietan gatazka, gaizki ulertua edo tentsio uea sortzen duena hizkuntza da.

Diskurtso batzuen eta besteen arteko erretena bistako eginez, beraz, euskara ez da jendea elkartu, bizikidetzat sustatu eta zubiak sortzen dituen elementu gisa irudikatzen; baizik eta elkar urruntzeak bultzatu, gatazkak piztu edo pertsonen arteko harreman eta entendimenduak eteten dituen errealitatetzat jotzen da.

4.2.8. *Batuak banatu*

Iturri ofizialetako diskurtso mailan euskara batuak duen zilegitasun eta balioa ukaezinak dira. 1968an Euskaltzaindiak Oñatin egindako batzarrean piztu zen txinparta eta euskalkien artean elkar ulertzeak errazteko helburuz sortu zen hizkuntza arautu berri hura. Geroztik hori izan da akademian, komunikabideetan edota erakundeetan irakatsi, bultzatu eta erabili izan ohi den hizkuntza eredia eta egun zabaldua da haren erabilera.

Diskurtso ofizialek ere balio hori aintzat hartzen dute:

“Euskararen batasunak euskara tresna gaurkotua eta baliagarria bihurtzeko atea ireki zuen. Berrogeita hamar urte hauetan euskarak ibilbide ezin emankorragoa egin du. Inguruko hizkuntza nagusiek ehunka urtetan egindako bidea, berrogeita hamarrean urratu behar izan du euskarak. Batasunak ahalbidetu du euskarak gaur bereak dituen plaza asko bereganatzea. Batasunak emandako lanabes zorrotz hori funtsezkoa izan da urtez urte euskara izaten ari den garapena lortzeko.” (Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz, 2014-12-3)

Euskalkiek duten balioa ukatu gabe, euskara batua euskararen hedapen eta garapenaren erantzule handienetarikoa bat bezala hautematen da, eta ulertzeraren ematen da hari eskerrak lortu dituela euskarak azken hamarkadetan emandako aurrerapausoetarikoa asko (beste hizkuntzek horiek lortzeko *“ehunka urte”* behar izan dituztenean). Neurri batean, euskara batuaren inguruko diskurtsoak bizikidetzaren diskurtsoa dakar gogora: euskara garatu eta zabaltzeko aukera eman baitu hizkuntza bateratu (eta ondorioz elkar ulertzea ahalbidetu) izanak.

Baina umore esketxetatik euskara batuaren inguruan iradokitzen den ikuspegia oso bestelakoa da. Euskara batua ez baita aurrerapauso edo hizkuntzaren garapenarekin lotzen, baizik eta alderantziz, elkar ulertu eta komunikatzeko oztopo gisa ikusten da, abantailak baino zailtasunak dakartzana.

Umore esketxetan, euskara batuaren gaia ez da haustura gisa erabili ohi. Hau da, ez da bromaren itu izaten baina haren inguruko aipuak sarri tartekatzen dira esketxetan, eta oro har, batuaren aurkako mezuak helarazteko balio dute. Horien artean, batetik, aipagarri dira euskara batua hizkuntza adizkera *“zaila”* delako ideia indartzen dutenak. Hala ikus liteke, esaterako, bere biloba bisitan duen baserritar baten esketxean, non, bilobaren euskara ulertzen ez

duelako kexu ageri den gizon zaharra: *“ditxosozko batuan ez dao ezer ulertzeik!”* (28). Edo beste honetan, non, ulertzen baino ikasten konplexua den adizkera dela esaten zaigun: *“¡Entre aprender el EGA y el batua no hay quien se aclare!”* (29).

Kasu batzuetan nabarmena da diskurtso honen presentzia: batuaren zailtasunaren usteari hainbesteko indarra ematen zaio ezen bere helburu eta funtzio bakarria “zaila” izatea dela ere iradoki izan zaigun:

“Crearemos un nuevo dialecto que no guste ni a los vizcaínos ni a los guipuzcoanos y lo llamaremos batua. Y cada años le cambiaremos las reglas para dar más por saco” (30).

Euskara batua inolako beharrik gabe sortu izana azpimarratzen da hemen, haren helburu bakarria euskara ikasi nahi duten horiek gogaitzea delako mezuarekin jokatu.

Baina euskara batua zaila dela iradokitzeaz gainera, umore esketxek bestelako diskurtsorik ere helarazten dute horren inguruan. Aurrez aipatutakoarekin lotura eginez, euskara batuak elkar harremanak oztopatu edo mozteko zio izan daitekeela iradokitzen zaigu.

Horren inguruko adibide garbienetariko bat aurrez aipatu dugun hegazkin istripuaren esketxa izan daiteke (27). Bertan ikus daitekeenez hegazkin istripua izan ondoren laguntza eske diharduen pilotuak baserritar batekin topo egiten du, eta laguntza euskara batuan eskatu izanagatik (eta ez euskalkian) baserritarrak baztertu eta abandonatu egiten du. Gogoan izan behar da kasu honetan baserritarrak ere euskaraz badakiela, eta beraz pilotua bere kasa utzi izanaren motiboa ez datzala hainbeste euskara erabili izanean, baizik eta euskaraz egiteko aukeratu duen moduan. Kasu honetan, beraz, azpimarratu egiten zaigu batua ez dela euskalkia bezalakoa, eta are gehiago, baserritarrak baztertu egiten badu, batuaren “apartekotasun” horrek negatibotik zerbait baduela uler liteke. Hala, euskara izanik ere, “bestelakoa”, “desberdina”, “anomaloa” den euskara gisa aurkezten zaigu.

Euskara batuaren inguruan helarazten diren diskurtso informalek, beraz, ez dute haren balioa inolaz ere goraiatzeko; alderantziz, funtzio sozial errealik gabeko (euskalkiak egonik zertarako batua); ikasten zaila den (*“la gramática y la tabla me lian”*, 31); eta harremanak zailtzen dituen hizkuntza molde gisa aurkezten zaigu.

Azken kasu honetan ere esparru informaleko eta formaleko diskurtsoen arteko aldea nabarmena dela ikus liteke. Euskara batua ez da inolaz ere abantaila gisa ikusten, ez eta euskaldunen arteko komunikazioa eta elkar ulertzea errazteko lagungarri denik pentsatzen ere (euskara batuaren helburuetako bat zena/dena). Horren orde zoztopoak eta distantziak sortzen dituela iradokitzen zaigu eta euskara batua ikasi edo erabiltzeko motibazioa kentzen duten diskurtsoak gailentzen dira.

5. Ondorioak

Euskararen inguruko diskurtsoen kasua harrigarria denik ezin uka, Eusko Jaurlaritzatik (eta ETBtik) gizarteratzen diren mezuak zein kontraesankorrak diren ikustea deigarria baita. Esparru ofizialean euskararen erabileraren eta ezagutzaren aldeko diskurtsoak sustatzen diren une berean, EITBk alderantzizko mezuekin kolpatzen du ikuslea, eta ez da erokeria pentsatzea iritzi osatu eta irmorik ez duen hartzailea erakargarrien egiten zaion iturriaren alde lerratuko dela, alegia, umore bidez jasotako mezuaren alde.

Kasu honetan aintzat ematen dugu esparru ofizialean igorritakoak zehaztasunez egin den hitzen eta mezuen aurre-lanketa bat izan dutela, besteak beste, gobernu orok izaten duen komunikazio aditu talderik izango duelako Jaurlaritzak ere. Aldiz, duda egiten dugu umore bidez igorritakoek galbahe zurrun horiek pasa dituztenik. Izan ere bi esparru hauetako euskararen inguruko diskurtsoak hain desberdinak izatea nahita eginiko zer edo zer dela pentsatzea kosta egiten zaigu, baina behar bada oker gaude. Burura datorkigun erantzun errazena bestelakoa da: entretenimendu saioetako edukia izanik atentzio berezirik jarri ez zaiela eta umorez igortzen diren edukiak izanagatik horien diskurtsoak eta eragin sozialak gutxietsi direla pentsatzea.

Baina, hain zuzen ere, eragin gutxikoa dela pentsatzea akats larritzat jotzen dugu. Izan ere, umorearen ahaltasun handienetariko bat horixe bera da: onberatzat jotzen denez haren diskurtsoak beldur gabe barneratu eta ingurukoekin partekatzeko grina pizten du. Gozagarria izateak umorearen kalte edo arriskuak lasaitasun gehiagoz hartzea dakar eta, hain zuzen ere horregatik, umorez esaten direnak zilegitasun, azkartasun eta arrakasta gehiagoz gizarteratu ohi dira. Edo saiatu, bestela, umorez esaten diren diskurtso “mingarri” horietakoren bat esparru formaletik helarazten, eta ikusi zein den horrek pizten duen erreakzioa. Badakigu horren aurkako ahotsak berehala oldartuko liratekeela.

Esparru formaletik helarazten diren diskurtsoek ez dituzten bestelako abantailak ere baditu umoreak. Izan ere, esparru formalean esandakoak entzuten ditugunean, esaten diguten hori gustukoa dugun edo ez, horrekin ados gauden edo ez, pentsatzeko aukera izaten dugu. Eman zaizkigun argudioak baloratu, horiek zalantzan jarri, gure adostasun/desadostasun maila kalibratu eta, bukaeran, guzti horrekiko ondorio bat ateratzeko gai izango gara. Eta ondorio hori, gainera, aldagarria izango da hurrengo egunetan ere, aurrez ditugun usteekin doitzen joango baita eskuratu dugun informazio berria. Baina bat-batekotasuna eta erakargarritasuna desberdinak dira umorean: ez dagoelako pentsatzeko tarterik eta diskurtsoa konturatu gabe barneratzen delako, hori hausnartzeko denborarik hartu gabe. Are gehiago, gainera, aldiro berriak diruditen txisteen bidez behin eta berriz errepikatzen zaizkigun diskurtsoak kontsumitzen ditugunean, kasu horietan era bat automatizatua eta normaldua izaten baitugu diskurtso horren komikotasuna (adibidez, hiritarra baino objektiboki barregarriagoa egiten zaigu baserritarra; edo gaztelaniaduna baino euskaldunberria).

Halako adibiderik ikusi dugu aztertu diren esketxen artean ere. Izan ere, ikusi da ETBk igorritako diskurtso horiek ez direla euskal gizarteko partaideek ezezagunak dituzten diskurtsoak. Alegia, ez dira berriak; alderantziz, gizartean jadanik dauden horiexek

berrerabiltzen dira esketxetan ere. Zehazki, umore diskurtsoetan helarazitakoak marko teorikoan aipatu den ikerketetako baten emaitzekin alderatzen badira (Amorrortu eta beste, 2009), ikus liteke erdal hiztunek euskararen inguruan dituzten usteetariko asko ETBko txisteetan erreproduzitu egiten direla diskurtso moduan, telebista bilakatuz uste horiek baieztatzen eta elikatzen jarraitzeko sorgin-gurpil. Hau da, gizartean dauden euskararen aurkako aurre-usteak elikatzen jarraitzeko iturri bilakatzen dira halako edukiak dituzten esketxak.

Hori horrela, eta esparru formaleko diskurtsoek duten eraginkortasun eta zilegitasuna zalantzan jarri gabe, umorearen gaitasuna ere kontuan hartzeko modukoa delakoan gaude. Euskararen ezagutza eta erabileraren egoera poliedrikoa dela ulertzen badugu, umoreak, ezaugarri partikularreko diskurtso igorle den heinean eta euskararen inguruko diskurtsoak maneiatzen dituen neurrian, alde horietako bat betetzen duela ukazina baita. Diskurtsoak helarazi eta asimilatuak izateko duen gaitasuna desberdina da, eta hain zuzen ere horregatik, bere bitartez igortzen diren diskurtsoak pisu berezia hartzen dute, are gehiago halakoak Jauriaritzaren eskumenean daudenean.

Esparru informaletik, orokorrean, eta umorez, zehazki, igortzen diren diskurtsoei arreta gehiago jartzea lagungarri izan daitekeelakoan gaude beraz, orain arte atentziorik eman ez zaion esparruetara begira jartzeak (umorea kasu) bizi ditugun zenbait egoera ulertzen lagun dezakeelako, batik bat.

“Deberíamos preguntarnos si mientras el uso del euskera aumenta en los ámbitos formales, es decir, en aquellos espacios que son objeto de algún tipo de regulación, aumenta también en la familia, en la sala de estar del hogar. Deberíamos preguntarnos también si el consumo de productos de ocio, culturales y de todo tipo en euskera aumenta significativamente, de manera paralela al aumento de la oferta. Deberíamos preguntarnos también en qué medida ha aumentado la consideración social hacia el euskera. Es evidente que queda mucho por hacer.” (Patxi Baztarrikaren bloga: El euskera, patrimonio de todos, ¿lengua de todos?)

6. Eranskinak

6.1. Lagina

Esparru formaleko diskurtsoak:

2009-01-29. Patxi Baztarrikaren bloga: *El euskera, patrimonio de todos, ¿lengua de todos?*.
(<http://patxibaztarrika.eus/el-euskera-patrimonio-de-todos-%C2%BFlengua-de-todos/>)

2013-12-3. Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz.

2014-12-3. Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz.

2014-10-14. Euskararen agenda estrategikoa 2013-2016, Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Legebiltzarreko agerraldia.

2015-12-3. Euskararen Nazioarteko Eguna-Lehendakariaren hitzaldia, Lehendakaritza, Gasteiz.

2016-03-31. Patxi Baztarrikaren bloga: *Aumenta la matriculación en los euskaltegis*.
(<http://patxibaztarrika.eus/aumenta-la-matriculacion-en-los-euskaltegis/>)

Esparru informaleko diskurtsoak:

Esketxak	ETB1 (Irrikitown, 2014-2016)	ETB2 (Vaya Semanita, 2013-2016)
Euskalkia. Bizkaitarrez	1	
Euskalkia. Frantsesez	2	
Hitanoa. Gipuzkoarra	3	
Hitanoa. Landatarra	4	
Hitanoa. Nekazaria	5	
Hitanoa. Herri kirolaria	6	
Doinua. Ahoskera	7	
Doinua. Euskalduna	8	
Doinua. Bertsolaria	9	
Doinua. Ezker abertzalea	10	
Doinua. Baserritarra	11	
Doinua. Ezker abertzalekoa ez denarekin	12	
Doinua. Euskara ez duna	13	
Euskara maitatu. Katalana		14
Hizkuntza zaila. EGA	15	
Hizkuntza zaila. Kalekoa		16
Euskaraz, edo. Euskañol		17
Euskaraz, edo. Esamoldeak		18
Euskaraz, edo. Ibilaldia		19
Zaharra. Cromagnonak		20
Zaharra. Biblia		21
Zaharra. Sabino Arana		22
Zaharra. Zaharrenetarikoa		23
Zaharra. Milaka urte		24
Satelitea. Oinarrizkoa dakit		25

Hesi. Euskaldunberria	26	
Hesi. Hegazkin istripua		27
Banatu. Ez da ulertzen	28	
Banatu. EGA		29
Banatu. Izorrazteko egina		30
Banatu. Zaila		31

6.2. Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko kontratuaren zenbait atal

PROGRAMA KONTRATUA (2016-2019)

Programa Kontratuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta EITBren arteko harremanen esparru bateratzailea ezartzea eta kontratuaren indarraldirako. Gomendaturik daukan irrati-difusio eta telebistako zerbitzu publikoa azken horrek eskaintzearen ondorio dira harremanok. Horretarako, esleituriko zerbitzu publikoaren egitekoaren definizioa ezartzen da, zerbitzuak dakartzan edukia zehaztuz, eta, hori ere modu bateratzailean, EITBri zerbitzu publiko hori ahalik eta kalitate-baldintza onenetan emititzea ahalbidetzen dion finantzaketa egonkorra zehazten da.

5.– ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEKO EITB-K BERE GAIN HARTU DITUEN

5.4.11.– EITBk Eusko Jaurlaritzarekin eta herri-erakundeekin aliatu modura jardungo du elkarlanean, herritarrak euskararen jakintza eta erabilerari buruz sentsibilizatzea xedetzat duten ekimenetan.

Diru-sarrera propioen (publizitatea saltzetik eta kudeaketa-sarreretatik egindakoak) eta EITBri gomendatzen zaion zerbitzu publikoko lanak ekitaldi bakoitzeko eragiten dituen guztirako gastuen arteko aldea orekatzeko, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du Aurrekontuen Legean EITBrentzat eta haren kudeaketako sozietateentzat honako gastu-ekarpen hauek egiteko konpromisoa (uneko eurotan):

2016, 115.725.738 euro

2017, 116.664.845 euro

2018, 119.115.083 euro

2019, 121.561.781 euro

1.– Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea (aurrerantzean EITB) sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen lehen artikulua erakunde horri egokitzen dizkio Eusko Jaurlaritzari dagozkion irrati-difusio eta telebistako zerbitzu publikoen funtzioak eta baita zerbitzu horiek emititzea ere; zeregin hori EITB osatzen duten sozietate publikoen bidez betetzen du. Esleipen horri erantzunez, EITB sortzeko 5/1982 Legearen 45. artikulua honako hau ezartzen du: «Euskal Irrati Telebista Erakundearen... dirubideak Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen Orotariko Diruegitamuen pentzutan egingo dira...», eta «egiteratu ditzan ihardunetatikako dirueskuraketa eta irabaziez baliatzera» ahalduntzen du.

3.– Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorreko (IKLO) 40. artikuluan arautu egin da ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen eskaintzaile publikoen jarduna lege-testu horretan jasotakoaren arabera, «komunitatearentzat interes ekonomiko orokorra duen funtsezko zerbitzu bat ematean datza ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen jarduna, eta haien egitekoak dira: printzipio eta balio konstituzionalak sustatzeko edukiak zabaltzea, askotariko iritzi publiko bat sortzen laguntzea, Espainiako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzera ematea, eta jakintza nahiz arteak zabaltzea –ikus-entzunezko kultura sustatuz, bereziki–. Era berean, ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoaren eskaintzaileek gehiengoaren programazioaren hartzaile ez diren herritar eta gizarteko taldeak zainduko dituzte».

3.– ZERBITZU HAU ESKAINTZEKO PRINTZIBIOAK ETA JARDUERA-OINARRIAK.

h) Euskara sustatzea, euskararen erabilerari begira programazioko oinarrizko printzipioak ezarriz, kontuan hartuz Euskal Autonomia Erkidegoan euskarazko irrati- eta telebista-emanaldien eskaintza bermatu behar dela.

i) Hizkuntza ofizialetako edozeinetan landutako euskal kultura, orotariko agerpen, euskarri, baliabide eta adierazpidetan, sustatu eta hedatzea.

4.– ZERBITZU PUBLIKOAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK.

2) Euskara eta gero eta elebidunagoa izan behar duen gizarte bat sustatzea, hedabide publiko gisa hizkuntza normalizatzeko, prestigioa emateko eta bizitza publikoan presente egoteko zutabe nagusietako bat baita, eta euskararen erabilera erraztu eta hedatzeko ezinbesteko tresna. Euskararen normalizaziorako politiken bidaide izan behar du EITBk aro digitalean, eta euskararen eta euskal hiztunen neurri egindako unibertso digital bat eraikitze gaitasuna eta behar adina baliabide izango ditu. Berezi bultzatu behar dira haur eta gazte elebidunen belaunaldi berriei zuzendutako edukiak, eta balio demokratikoak eta elkarbizitzakoak transmititu behar dira horietan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren planteamenduen osagarri. Euskal gizarteak erabiltzen dituen hizkuntzen arteko berdintasuna zainduko duen gizarte-pedagogia garatzen lagundu beharra dago. Alde horretatik, estrategia publikoaren tresna aktibo bat izan behar du hizpide dugun zerbitzu publikoak, eta xede hori betetze aldera Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen ekintzak gauzatu beharko ditu. Indarra egin beharra dago euskal gizartean euskaraz hitz egiten ez duten sektoreek euskal gizartean sortutako era askotako bizipenak eta euskaraz sortutakoak ezagutu nahiz goza ditzaten. Xede hori betetze aldera, euskaraz gauzatutako ekintza kulturalak eta sozialak zabaltzen ahaleginduko da gaztelaniazko programazioa.

7. Bibliografia

- ALTHUSSER, L. (2005) [1988]. *Ideología y aparatos ideológicos de Estado; Freud y Lacan*. Buenos Aires: Nueva visión.
- AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I., BARREÑA, A. (2009) *Actitudes y prejuicios de los castellanohablantes hacia el euskera*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ANDUAGA, U. (2016) *Herri Barrez: Umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua*. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco, Soziologia Saila. Bilbo
- AUSTIN, J. L. (1981). *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós.
- AUSTIN, J. L. (1988). *Ensayos filosóficos*. Madrid: Alianza Universidad.
- BARTHES, R. (1985). *L'aventure sémiologique*. Paris: Seuil.
- BECK, U. (2006) *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- BEKERMAN, J. (1996) *El psicoanálisis ilustrado*. Buenos Aires: Errecé.
- BERGSON, H. (2008) [1899] *La risa. Ensayo sobre la significación de lo cómico*. Madrid: Alianza.
- BILLIG, M. (2014) [1995] *Nacionalismo banal*. Madrid: Capitán Swing.
- BOURDIEU, P. (2001) *Langage et pouvoir symbolique*. Paris: Seuil/Points.
- BRADNEY, P. (1957) "The joking relationship in industry". *Human Relation*, 9 (2), 179-187.
- COSERU, R. (1959) "Some social functions of laughter: A study of humor in a hospital Setting". *Humor relations*, 12(2). 171-182.
- COURTINE, J. (1981) "Quelques problèmes théoriques et méthodologiques en analyse du discours, à propos du discours communiste adressé aux chrétiens". *Langages*, 15 (62), 9-128
- DERRIDA, J. (1989) *La escritura y la diferencia*. Barcelona: Editorial Anthropos.
- ECHVERRÍA, R. (2003) *Ontología del lenguaje*. Santiago: J.C. Sáez Editor.
- FINE, G. (1984) "Humorous interactions and the social construction of meaning: Making sense in a jocular vein". *Studies in Symbolic Interaction*, 5 (5), 83-101
- FOUCAULT, M. (2003) [1969] *La arqueología del Saber*. México: Siglo XXI.
- FOUCAULT, M. (2010) *Las palabras y las cosas*. México: Siglo XXI.
- GOIKOETXEA, J. (2010) *La práctica de la incomunicación o el conflicto discursivo*. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco, Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación. Donostia.

- KOTHOFF, H. (2000) "Gender and joking: On the complexities of women's image politics in humorous narratives". *Journal of Pragmatics*, 32, 55-80.
- KUIPERS, G. (2015) *Good Humor, Bad Taste. A sociology of the Joke*. Berlin/Boston: Mouton de Gruyter.
- KUIPERS, G. (2008) The sociology of humor. Academia.edu [ikusgarri 2018-07-14ean](https://www.academia.edu/1166958/The_sociology_of_humor)
- LACAN, J. (2008) [1966]. *Escritos*. Mexiko: Siglo XXI.
- MARTIN, L., PARDO, M., eta WHITTAKER, R. (1998) El análisis crítico del discurso: una mirada indisciplinada. In L. Martin eta R. Whittaker (kor.), *Poder-decir: o el poder de los discursos* (9-34). Madril: Arrecife.
- MARTINEZ DE LUNA, I., (2018) Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa HIZNET. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea
- MARTINEZ DE LUNA, I., ERIZE, X., AKIZU, B., ETXANIZ, J., ELIZAGALDE, A., (2016) *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa. Emaiz txostena*. Gasteiz: Euskararen Aholku Batzordea
- MULKAY, M. (1988) *On Humour: Its Nature and Place in Modern Society*. Oxford: Polity Press.
- PÊCHEUX, M. (1978). *Análisis automático del discurso*. Madril: Gredos.
- PÊCHEUX, M. eta FUCHS, C. (1978b). *Actualizaciones del análisis automático del discurso*. Madril: Gredos.
- POWELL, C. (1988) A phenomenological analysis of humor in society. In C. Powell eta G. Paton (eds.), *Humour in Society* (86-105). Basingstoke: MacMillan
- ROBINSON, D. eta SMITH-LOVIN, L. (2001). Getting a laugh: Gender, status, and humor in task discussions. *Social Forces* 80 (1): 123-158.
- SAEZ RUEDA, L. (2002). *El conflicto entre continentales y analíticos*. Bartzelona: Crítica.
- SANTANDER, P. (2011) "Por qué y cómo hacer análisis de discurso" *Cinta moebio* 41: 207-224orr.
- SAUSSURE, F. (2004) *Escritos sobre Lingüística General*. Bartzelona: Gedisa.
- SCHUTZ, A. (1974) *El problema de la realidad social*. Buenos Aires: Amorrortu
- SYKES, A. M. J. (1966) "Joking relationship in an industrial setting". *American Anthropologist*, 68, 188-193.

Bestelako materiala

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2016. Andoain: Soziolinguistika Klusterra VI. *Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa